# SSIFF 69

Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

# Memoria 2021

#69SSIFF sansebastianfestival.com

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
EUSKADI BASQUE COUNTRY
GOBIERNO DE ESPAÑA MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE icaa

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor

rtve

Media Partner

M+

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators

kutxabank
AMENABAR

69 | SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival

Instituzio Kideak
Instituciones Socias
Associated Institutions

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
EUSKADI BASQUE COUNTRY
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE
icaa

Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Official Sponsor
rtve

Media Partner
M+

Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Official Collaborators
kutxabank
AMENABAR

# Aurkibidea

**Sarrera** 04

**Zinemaldia datuetan** 05

**Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza** 09

**Filmak** 11

**Lehiazko sailak** 11

- Sail Ofiziala 12
- New Directors 14
- Horizontes Latinos 16
- Zabaltegi-Tabakalera 18
- Perlak 20
- Nest 22

**Lehiazkoak ez diren sailak** 25

- Culinary Zinema 26
- Made in Spain 28
- Zinemira 30
- Film sorpresa 32
- Haurrentzako zinema 34
- Belodromoa ikastetxeetan 36
- Atzerabegirakoa- Loreak infernuan. Koreako zinemaren urrezko aroa 38
- Klasikoak 40

**Galak** 43

- Donostia Saria emanaldia 44
- RTVE Galak 46
- Movistar+ Gala 48
- Euskal Zinemaren Gala 50
- EiTB Gala 52
- Loterías y Apuestas del Estadoren emanaldi berezia 54
- Fipresci Saria 56

**Films-to-Be** 58

**Proiektuak**

- Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroa 60
- VII. Ikusmira Berriak 62
- Zinemaldia Startup Challenge 63

**Works in Progress**

- WIP Latam 64
- WIP Europa 65
- Bideoteka 66
- Beste lankidetza-jarduera batzuk 67
- Mahai inguruak eta networking 70

**Epaimahaiak** 71

- Epaimahai Ofiziala 72
- Kutxabank-New Directors Sariaren epaimahaia 73
- Horizontes Sariaren epaimahaia 73
- Zabaltegi-Tabakalera Sariaren epaimahaia 73
- Nest Sariaren epaimahaia 73
- Euskal Zinemaren Irizar Sariaren epaimahaia 74
- Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko proiektu onenaren Sariaren epaimahaia 74
- RTVE-Beste Begirada Sariaren epaimahaia 74
- Espainiako Lankidetza Sariaren epaimahaia 74
- Dunia Ayaso Sariaren epaimahaia 74

**Palmaresa** 75

- FIAPF-en sari ofizialak 76
- Beste sari ofizial batzuk 77
- Industria sariak 78
- Beste sari batzuk 80
- Sari paraleloak 80
- Ohorezko sariak 81

**Pentsamendua eta Eztabaida** 84

- Solasaldiak 86
- European Film Forum 95
- Zinemaldia & Technology 97
- Zinemaldia 70. Historia posible guztiak 98

**Urte osoko Zinemaldia** 99

- 365 eguneko Zinemaldia Tabakaleran 100
- Elías Querejeta Zine Eskola 103

**69. edizioko 69 momentu** 104

# Sarrera

Kuantitatiboki, 2019koaren eta 2020koaren arteko edizio bat izan da 2021ekoa, eta COVID-19aren eraginak markatua.

96.867 ikusle izan dira, iaz baino %46,2 gehiago, baina 2019an baino %45,8 gutxiago.

Eta Zinemaldiko emanaldietan eta jardueretan 3.680 akreditatu izan dira: 2019an baino %15 gutxiago, baina iaz baino %40 gehiago.

69. edizioan, zinema-industriaren jarduera presentzialak berriro egin ahal izan dira, eta horietarako akreditazio kopurua pandemia aurrekoa baino zertxobait txikiagoa izan da.

Datorren urtean aretoak %100ean betetzeko aukera egon zein ez, Zinemaldiak sarrerak erreserbatzeko sistema berraztertzea proposatzen du, baina publiko orokorrak eserleku zenbakituak izango ditu aurrerantzean ere.

Kualitatiboki, bestalde, kritikak eta zinema-industriak azken urteetako balorazio onenetako bat egin dute programazioaz. Atzera begirakoa itzuli da, korear zinemaren urrezko aroari eskainia, baita Klasikoak saila ere. Belodromora itzultzea besterik ez da falta, eta espero dugu hurrengo edizioan gertatzea.

Zinemaldiak ahalegin handia egin du Nestek bi hamarkada bete dituela ospatzeko; urtemuga horrek argi erakusten du Zinemaldiak talentu berrien alde egindako apustua ez dela oraintsuko kontua. Gainera, lehen aldia da Zinemaldiak hilean behingo programazio bati ekin diola, Tabakaleran, Zinemaldia + Plus programaren bidez. Programa hori urte osoko zinema-jaialdiaren kontzeptuaren isla da.

Edizio seguru bat antolatzeko eta ahalik eta hautaketa onena egiteko ahaleginaz gain, Pentsamendua eta Eztabaida arloa sendotu izana aipatu behar da. Arlo horren xedea da zinema-jaialdiek eta kultura garaikideak aurre egin beharreko erronkei erantzutea, urtean zehar proposamenak eginez; horren adibide dira, besteak beste, Zinemaldiko klase magistralak, aurrez aurreko formatua berreskuratu dutenak, Céline Schiamma edo Paolo Sorrentino ezagunekin, adibidez.

Pentsamendua eta Eztabaida arloaren ekintzen artean, lehen jasangarritasunari buruzko txostena aipatu behar da; bertan jaso dira Zinemaldiaren egoeraren diagnostikoa eta ingurumen-inpaktua murrizteko konpromisoak.

Jasangarritasuneko erronkei buruzko dokumentua, beraz, genero-identifikazioari buruzko txostenari gehitu zaio. Txosten horren hirugarren edizioa egin da, eta emakumeen parte-hartzearekin ondutako zinema-proiektuek Zinemaldian zer presentzia duten azaltzen du datutan. Aurten, genero femeninoko pertsona gisa identifikatzen diren profesionalak Zinemaldiko ikusgarritasun handieneko lekuetan egon dira (Sail Ofizialeko lehiaketan, epaimahaietan eta sarietan); hala ere, ez da aldaketa nabarmenik izan zenbaki orokorretan; izan ere, emakumeen parte-hartzea heren batekoa da zuzendaritza, ekoizpen, gidoi eta muntaketa kategorietan, eta are txikiagoa argazki-zuzendaritzan eta musika-konposizioan.

Gizonezko eta emakumezko aktore onenen sarien ordez interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko Maskorra emateko erabakiak eta Johnny Deppi Donostia Saria emateak sortu zuen eztabaidarekin, Zinemaldiak are irmoago ekin dio polarizazio garai hauetan eztabaida-gune irekia izateko ahaleginari, ikusleen, prentsaren eta zinema-industriaren topaleku izaten jarraitu nahi duenez.

70. urteurrenaren atarian, Zinemaldiak, aldi berean jaialdi eta instituzio den aldetik, protagonista izan nahi du zinema-jaialdien paradigma-aldaketan, eta ez ikusle. Zazpi hamarkadak ospatzeko jarduerek iragan partekatuari, orainaren behaketari eta etorkizunaren irudikapenari buruzko begirada kritiko bat proposatuko dute, haren parte izateko eta zinema-komunitateko sortzaileei ahalik eta hobekien laguntzeko.

# Zinemaldia datuetan

**96.867** ikusle

**211** film

- **52** herrialde
- Munduko **52** estreinaldi
- Nazioarteko **4** estreinaldi
- Europako **7** estreinaldi
- Espainiako **52** estreinaldi

**585** emanaldi

**3.680** akreditatu

**889** kazetari

- **486** hedabide

**1.625** industriako profesional

- **140k** online parte hartu zuten

**1.166** bestelako akreditatu: lantaldeak, zinema eskolak, programatzaileak, kultur erakundeak…

**117** aurkezpen eta solasaldi

**35** film aurkeztu dira Kafea. Un Nespresso con… elkarrizketa-espazioan…

**6** solasaldi eta eskola magistral Pentsamendua eta Eztabaida ekimenean (Céline Sciamma, Sharbanoo Sadat, Ikasle ohien topaketa Nest 20, James Mockoski, Laura Wandel, Paolo Sorrentino)

**62** prentsaurreko (45 Zinemaldian zehar)

**773.752** bisita Zinemaldiaren webgunean

**453.337** bisitari bakar

**2.910.306** orrialde ikusita

**4 minutu eta 11 segundoko** batez beteko iraupena saioko

- **5 minutu eta 48 segundoko** batez besteko iraupena saioko Zinemaldian zehar

**59.800** jarraitzaile Facebooken

**93.200** jarraitzaile Twitterren

**74.400** Instagramen

## Bertaratzea

| | 2010 | 2020 | 2021 | 2010ekiko aldaketa | | 2020ekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **Ikusleak** | 155.060 | 66.234 | 96.867 | -58.193 | %-37,5 | 30.633 | %46,2 |
| **Akreditatuak** | 2.820 | 2.626 | 3.680 | 860 | %30,5 | 1.054 | %40,1 |
| **Bildutako dirua** | 691.930 | 373.710 | 563.345 | -128.584 | %-18,6 | 189.635 | %50,7 |

(*) Diru-bilketaren zifretan BEZa sartuta dago. 2010ean, %18ko BEZ orokorra aplikatzen zen eta, txarteldegian, %8koa. 2020. y 2021. urteetan, BEZ orokorra %21ekoa izan zen, eta txarteledegian, %10ekoa.

## Akreditazioak

| | 2010 | 2020 | 2021 | 2010ekiko aldaketa | | 2020ekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **Kazetariak** | 1.012 | 689 | 889 | -123 | %-12,2 | 200 | %29 |
| **Espaniar kazetariak** | 814 | 583 | 735 | -79 | %-9,7 | 152 | %26,1 |
| **Atzerritar kazetariak** | 198 | 106 | 154 | -44 | %-22,2 | 48 | %45,3 |
| **Hedabideak** | 516 | 376 | 486 | -30 | %-5,8 | 110 | %29,3 |
| **Espainiako hedabideak** | 331 | 277 | 347 | 16 | %4,8 | 70 | %25,3 |
| **Atzerriko hedabideak** | 185 | 99 | 138 | -47 | %-25,4 | 39 | %39,4 |
| **Industria*** | 984 | 1.185 | 1.625 | 641 | %65,1 | 440 | %37,1 |
| **Gonbidatuak** | 824 | 752 | 1.166 | 342 | %41,5 | 414 | %55,1 |

(*) Akreditutako 1.625 profesionaletatik 1.485ek aurrez aurre parte hartu zuten eta 140k, online.

## Films-to-Be

### Proiektuak

| Proiektuak | 2010 | 2020 | 2021 | 2010ekiko aldaketa | | 2020ekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **KOPRODUKZIO FOROA: One to one bilera birtualak** | 365 | 437 | 509 | 144 | %39,5 | 72 | %16,5 |
| **IKUSMIRA BERRIAK: One to one bilera birtualak** | 46 | 81 | 75 | 29 | %63 | -6 | %-7,4 |
| **ZINEMALDIA STARTUP CHALLENGE: Ikusle birtualak** | - | 763 | 299 | - | - | 660 | %-60,8 |

(*) Koprodukzio Foroan 2012. urtea hartzen da abiapuntutzat, urte hartan hasi baitzen. Ikusmira Berriak, 2017. Zinemaldia Startup Challengera 57 lagun bertaratu ziren aurrez aurre (edukiera bete zen) eta 242 lagunek streaming bidez ikusi zuten.

### Works in Progress

| Works in Progress | 2010 | 2020 | 2021 | 2010ekiko aldaketa | | 2020ekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **WIP LATAM partehartzaileak** | 172 | 346 | 220 | 48 | %27,9 | -126 | %-36,4 |
| **WIP EUROPA* partehartzaileak** | - | 203 | 194 | - | - | -9 | %-4,4 |

(*) WIP Europa programa (lehen, Glocal in Progress) 2017an sortu zen.

WIP Latam jardueran parte hartu zuten 220 lagunetatik 129k modu birtualean parte hartu zuten, baita WIP Europan parte hartu zuten 194 lagunetatik 106k ere.

## Webgunea eta sare sozialak

| Webgunea eta sare sozialak | | 2010 | 2020 | 2021 | 2010ekiko aldaketa | | 2020ekiko aldaketa | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | Absolutua | Ehunekoa | Absolutua | Ehunekoa |
| **Web-erabiltzaileak** | Bisitak | 680.000 | 683.095 | 773.752 | 93.752 | %13,8 | 90.657 | %13,3 |
| | Bisitari bakarrak | 410.000 | 391.155 | 453.337 | 43.337 | %10,6 | 62.182 | %15,9 |
| **Zuzeneko emanaldiak (37)** | Webgunean | - | 21.594 | 26.635 | - | - | 5.041 | %23,3 |
| | Sare sozialetan | - | 36.113 | 19.731 | - | - | -16.382 | %-45,4 |
| **Bideo-erreprodukzioak** | Webgunean | 140.911 | 506.000 | 1.206.587 | 1.065.676 | %756,3 | 700.587 | %138,5 |
| | Sare sozialetan | - | 1.277.861 | 1.217.868 | - | - | -59.993 | %-4,7 |
| **Jarraitzaileak sare sozialetan** | Facebook | 3.450 | 57.000 | 59.800 | 56.350 | %1.633,3 | 2.800 | %4,9 |
| | Twitter | 2.000 | 90.700 | 93.200 | 91.200 | %4.560 | 2.500 | %2,8 |
| | Instagram | 530* | 61.400 | 74.400 | 73.870 | %13.937,7 | 13.000 | %21,2 |

(*) Neurketa hau 2013. urtekoa da, Zinemaldiak Instagram kontu ofiziala ireki zuenean.

# Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza

**AC/E (Acción Cultural Española):** PICE programa, Europako eta Latinoamerikako LGTBI zinema-jaialdietako programatzaileen topaketa.

**Ad Hoc Studios:** WIP Latam Industria saria, WIP Europa Industria saria.

**AECID (Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia):** Espainiako Lankidetza Saria, EuropaLatinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Alba Emission Free Energy:** Green Challenge.

**Amenabar:** Haurrentzako zinema, Sorpresa filma, Gaua ederra da (zinema aire zabalean).

**ArteKino:** ArteKino nazioarteko saria - Europa Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Asociación Interprofesional del Cerdo Ibérico:** Culinary Zinema.

**Azkuna Zentroa:** Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan.

**Basque Culinary Center:** Culinary Zinema.

**BTeam Pictures:** WIP Europa Industria Saria.

**CAACI (Iberoamerikako Ikus-entzunezko eta Zinematografiako Agintarien Konferentzia):** DALE! saria (Desarrollo América Latina-Europa) - EuropaLatinoamerika Koprodukzio Foroa.

**CIMA:** Puxika Gorria / El Globo Rojo.

**Cineuropa:** Collaborator Media.

**Creative Europe MEDIA:** Industria Saila, European Film Forum, Zinemaldia & Technology.

**Deluxe Content Services Spain:** WIP Latam Industria saria, WIP Europa Industria saria, Zinemaldia & Technology.

**Dolby Iberia:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**Donostia International Physics Center:** Belodromoa Ikastetxeetan, Zinema eta Zientzia.

**Donostiako Udala:** Donostia Hiria Publikoaren saria.

**EFAD (Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkartea):** DALE! saria (Desarrollo América Latina-Europa) - Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**EGEDA (Ikus-entzunezkoen Ekoizleentzako Zerbitzu Sozietatea):** WIP Latam onenaren Egeda Platino Industria Saria.

**EITB:** Zinemira, EiTB Gala.

**Elías Querejeta Zine Eskola:** Zinemaldia 70: historia posible guztiak, Ikusmira Berriak, ZINE.

**EPE-APV (Euskal Produktoreen Elkartea):** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Zinemira saria.

**Etxepare Euskal Institutua:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Europa Distribution:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Euskadiko Filmategia:** Loreak infernuan. Koreako zinemaren urrezko aroa atzerabegirakoa, Zinemira, Zinema eta Zientzia.

**Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila:** Haurrentzako Zinema.

**Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila:** Industria saila, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Zinemaldia Startup Challenge.

**Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo saila:** Zinemaldiko kazetaritza-lanari aipamen berezia.

**Filmoteca Española:** Retrospectiva Flores en el infierno. La edad de oro del cine coreano, Klasikoak.

**Gehitu:** Sebastiane saria, Sebastiane Latino saria, Europa eta Latinoamerikako LGTBIQ+ zinema-jaialdietako programatzaileen topaketa.

# Beste zinema-jaialdi, erakunde eta entitate batzuekin lankidetza

**Gipuzkoako Foru Aldundia:** Gipuzkoa Coopera, Jasangarritasuna.

**Golem:** Donostiatik Iruñera: Golem filmak Donostia Zinemaldian.

**(H)emen:** Lan jardunaldia.

**IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizleen Burujabeen Elkartea):** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Lau Haizetara Dokumentalen Foroa, Zinemira.

**ICAA (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutua):** Espainiako Zinematografia Saria.

**INCAA (Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Argentinako Institutua):** Proyecta – Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Gipuzkoa Coopera programa.

**Irizar:** Euskal zinemaren Irizar saria.

**Irusoin:** Ikusmira Berriak – Irusoin postprodukzio saria.

**Keler:** Gaua ederra da (zinema aire zabalean), Keler espazioa.

**Kutxa Fundazioa:** Zinemaldia 70: historia posible guztiak.

**Kutxabank:** Kutxabank-New Directors Saria.

**Laserfilm Cine y Video:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**LatAm Cinema:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa.

**Loterías y Apuestas del Estado:** Zinemaldia 70: historia posible guztiak ikerketa proiektua, Loterías y Apuestas del Estado emanaldi berezia.

**Lyoneko Institut Lumière:** Klasikoak.

**Marché du Film-Festival de Cannes:** Proyecta, Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, WIP Europa eta WIP Latam.

**Movistar+:** Media Partner, Movistar+ Gala, Zinemaldia Movistar+ areto birtuala.

**Nephilim Producciones:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**Nespresso:** Culinary Zinema, Kafea. Un Nespresso con... elkarrizketa gunea.

**No Problem Sonido:** WIP Latam Industria Saria, WIP Europa Industria Saria.

**Parenting at Film Festivals:** Puxika Gorria / El Globo Rojo.

**Programa Ibermedia:** WIP Latam.

**Projeto Paradiso:** WIP Latam.

**RTVE:** RTVE-Beste Beguirada saria, RTVE Galak.

**Screen International:** Collaborator Media.

**SGAE Fundazioa:** Made in Spain, Dunia Ayaso Saria, Euskal Gidoi Onenaren saria.

**Sherlock Films:** WIP Latam Industria Saria.

**Tabakalera:** Zabaltegi-Tabakalera, Nest, Ikusmira Berriak, Zinemaldia & Technology, 2deo serieak.

**TCM:** Gazteriaren TCM Saria.

**Tecnalia:** Zinemaldia & Technology.

**TIFF Transilvania International Film Festival:** Spain Focus, Carte blanche: San Sebastián.

**Variety:** Industria Saileko Media partnerra.

**Ventana Sur:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa - Proyecta.

**Vicomtech:** Zinemaldia & Technology.

**Xixoneko nazioarteko zinema-jaialdia (FICX):** Crossroads.

**Zineuskadi:** Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Zinemira, Haurrentzako zinema, Belodromoa ikastetxeetan.

# Filmak: Lehiazko sailak


Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
www.sansebastianfestival.com
© Matthew Brookes / Trunk Archive
Diseño: evavillarestudio.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69
Babesle Ofiziala
Patrocinador Oficial
Media Partner
Laguntzaile Ofizialak
Colaboradores Oficiales
Instituzio Kideak
Instituciones Socias

# Sail Ofiziala

Publikoan erakutsi gabeko film luzeen hautaketa –ekoitzi diren herrialdean estreinatuak soilik onartzen dira–; betiere, Film Ekoizleen Elkarteen Nazioarteko Federazioak (FIAPF) lehiazko zinema-jaialdien kategorian adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Sail Ofizialean lehiatzen diren film luzeek dute Urrezko Maskorra jasotzeko aukera. Epaimahai Ofizialak baloratu eta saritzen ditu filmok.

Sail Ofizialean, halaber, lehiaketaz kanpoko filmak aurkezten dira.

## Lehiaketan

- **Yi miao zhong / One Second** (Txina) / Zhang Yimou (Txina) INAUGURAZIOA
- **Arthur Rambo** (Frantzia) / Laurent Cantet (Frantzia)
- **Benediction** (Erresuma Batua) / Terence Davies (Erresuma Batua)
- **Camila saldrá esta noche / Camila Comes Out Tonight** (Argentina) / Inés Barrionuevo (Argentina)
- **Crai nou / Blue Moon** (Errumania) / Alina Grigore (Errumania)
- **Distancia de rescate / Fever Dream** (Peru - AEB - Txile - Espainia) / Claudia Llosa (Peru)
- **Du som er i himlen / As in Heaven** (Danimarka) / Tea Lindeburg (Danimarka)
- **Earwig** (Erresuma Batua - Frantzia - Belgika) / Lucile Hadzihalilovic (Frantzia)
- **El buen patrón / The Good Boss** (Espainia) / Fernando León de Aranoa (Espainia)
- **Enquête sur un scandale d'état / Undercover** (Frantzia) / Thierry de Peretti (Frantzia)
- **La abuela / The Grandmother** (Espainia - Frantzia) / Paco Plaza (Espainia)
- **Maixabel** (Espainia) / Icíar Bollaín (Espainia)
- **Ping yuan shang de huo yan / Fire on the Plain** (Txina) / Zhang Ji (Txina)
- **Quién lo impide / Who's Stopping Us** (Espainia) / Jonás Trueba (Espainia)
- **The Eyes of Tammy Faye** (AEB) / Michael Showalter (AEB)
- **Vous ne désirez que moi / I Want to Talk About Duras** (Frantzia) / Claire Simon (Erresuma Batua)

## Lehiaketatik kanpo

- **Rosa Rosae. La Guerra Civil / Rosa Rosae. A Spanish Civil War Elegy** (Espainia) / Carlos Saura (Espainia) INAUGURAZIOA - Film laburra
- **Las leyes de la frontera** (Espainia) / Daniel Monzón (Espainia) - KLAUSURAKO FILMA
- **La Fortuna** (Espainia) / Alejandro Amenábar (Txile). Telesaila (Osoa: 6 kapitulu)
- **La hija / The Daughter** (Espainia) / Manuel Martín Cuenca (Espainia)


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
kutxabank
New
Directors
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# New Directors

Zinemagileen lehen edo bigarren film luze erakutsi gabeen –ekoitzi diren herrialdean estreinatuek soilik har dezakete parte– nazioarteko lehiaketa, azken urtean ekoitziak baldin badira.

Sail honetako film guztiak dira Kutxabank-New Directors saria irabazteko hautagai. 50.000 euroko saria da, erdibanatzeko zuzendariaren eta filmak Espainian duen banatzailearen artean.

Kutxabank-New Directors saria Kutxabankek, Donostia Zinemaldiaren kolaboratzaile ofizialak, babesten du. Kutxabank-New Directors sariaren epaimahaiak baloratu eta saritzen ditu film hauek.

New Directors saileko filmak Gazteriaren TCM saria lortzeko hautagai ere badira. Sari hori 18 eta 25 urte bitarteko ikaslek osatutako epaimahaiak erabakitzen du.

## Lehiaketan

- **Carajita** (Dominikar Errepublika - Argentina) / Silvina Schnicer (Argentina), Ulises Porra (Espainia)
- **Ese fin de semana / That Weekend** (Argentina - Brasil) / Mara Pescio (Argentina)
  Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroa
- **Hon-ja sa-neun sa-ram-deul / Aloners** (Hego Korea) / Hong Sung-eun (Hego Korea)
- **İki şafak arasında / Between Two Dawns** (Turkia - Frantzia - Errumania - Espainia) / Selman Nacar (Turkia)
  WIP Europa 2020
- **Inventura / Inventory** (Eslovenia) / Darko Sinko (Eslovenia)
  WIP Europa 2020
- **Josefina / Josephine** (Espainia) / Javier Marco (Espainia)
- **La Roya / The Rust** (Kolonbia - Frantzia) / Juan Sebastián Mesa (Kolonbia)
  Europa-Latinoamerika VI. Koprodukzio Foroa - WIP Latam 2020
- **Las vacaciones de Hilda / Hilda’s Short Summer** (Uruguai - Brasil) / Agustín Banchero (Uruguai)
  Zinema Eraikitzen 36
- **Le bruit des moteurs / The Noise of Engines** (Kanada) / Philippe Grégoire (Kanada)
- **Marocco / Mikado** (Errumania - Txekiar Errepublika) / Emanuel Pârvu (Errumania)
- **Mass** (AEB) / Fran Kranz (AEB)
- **Nich’ya / Unwanted** (Errusia) / Lena Lanskih (Errusia)
- **Shu qi shi guang / Lost in Summer** (Txina) / Sun Liang (Txina)


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
Horizontes Latinos
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# Horizontes Latinos

Espainian erakutsi gabeko urteko film luzeen hautaketa; Latinoamerikan erabat edo partzialki ekoitziak, latinoamerikar jatorriko zinemagileek zuzenduak edo munduko beste inguru batzuetako komunitate latinoak hizpide dituztenak.

Horizontes Latinos saileko film guztiak Horizontes saria lortzeko lehiatzen dira. Sari horretako 35.000 euroetatik 10.000 zuzendariarentzat dira, eta 25.000, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

Horizontes sariaren epaimahaiak baloratu eta saritzen ditu film horiek. Horizontes Latinos saileko filmak, zuzendariaren lehen edo bigarren lana badira, Gazteriaren TCM saria lortzeko hautagai ere badira. Sari hori 18 eta 25 urte bitarteko ikasleek osatutako epaimahaiak erabakitzen du.

## Lehiaketan

- **Jesús López** (Argentina - Frantzia) / Maximiliano Schonfeld (Argentina) INAUGURAZIOA
  WIP Latam 2020
- **El empleado y el patrón / The Employer and the Employee** (Uruguai - Argentina - Brasil - Frantzia) / Manuel Nieto Zas (Uruguai) KLAUSURAKO FILMA
  WIP Latam 2020
- **Amparo** (Kolonbia - Suedia - Alemania - Qatar) / Simón Mesa Soto (Kolonbia)
- **Aurora** (Costa Rica - Mexiko - Panama) / Paz Fábrega (Costa Rica)
  Zinema Eraikitzen 37
- **Azor** (Suitza - Argentina - Frantzia) / Andreas Fontana (Suitza)
  Forum Europa-Latinoamerika V. Koprodukzio Foroa
- **La caja / The Box** (Mexico - AEB) / Lorenzo Vigas (Venezuela)
- **Madalena** (Brasil) / Madiano Marcheti (Brasil)
  Zinema Eraikitzen 36
- **Noche de fuego / Prayers for the Stolen** (Mexiko - Alemania - Brasil - Qatar) / Tatiana Huezo (El Salvador)
- **Piedra Noche / Dusk Stone** (Argentina - Txile - Espainia) / Iván Fund (Argentina)
  WIP Latam 2020
- **Una película de policías / A Cop Movie** (Mexiko) / Alonso Ruizpalacios (Mexiko)


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
TABAKALERA
Zabaltegi
Tabakalera
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# Zabaltegi-Tabakalera

Zabaltegi-Tabakalera da Donostia Zinemaldiko lehiazko sailen artean irekiena, ez baitu, estiloari edo denborari dagokionez, inolako arau edo mugarik: laburrak, ertainak, luzeak, fikziozkoak, ez-fikziozkoak, animazioak, serieak, ikus-entzunezko instalazioak, etorkizuneko aurkikuntzak eta klasiko garaikideak, Espainian erakutsi gabeak. Begirada eta molde berriak bilatzen dituen zinemari leku egiten dion saila da; eremu ireki eta arriskatua zinez.

Zabaltegi-Tabakalera saileko film guztiak dira Zabaltegi-Tabakalera saria irabazteko hautagai. Zabaltegi-Tabakalera sariko 20.000 euroetatik 6.000 euro filmaren zuzendariarentzat dira, eta 14.000 euro, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

Zabaltegi-Tabakalera saria berariaz sortutako epaimahai batek erabakitzen du, zinemaren eta kulturaren alorreko profesionalek osatua.

## Lehiaketan

- **Babardeală cu bucluc sau porno balamuc / Bad Luck Banging or Loony Porn** (Errumania - Luxenburgo - Txekiako Errepublika - Kroazia) / Radu Jude (Errumania)
- **Cenzorka / 107 Mothers** (Eslovakia - Txekiako Errepublika - Ukraina) / Péter Kerekes (Eslovakia)
- **El gran movimiento** (Bolivia - Frantzia) / Kiro Russo (Bolivia)
  Ikusmira Berriak II
- **Eles transportan a morte / They Carry Death** (Espainia - Kolonbia) / Helena Girón (Espainia), Samuel M. Delgado (Espainia)
  Ikusmira Berriak III
- **Haruharasan no uta / Haruhara-san's Recorder** (Japonia) / Kyoshi Sugita (Japonia)
- **Heltzear** (Espainia) / Mikel Gurrea (Espainia)
  Zinemira Kimuak - Film laburra
- **La traversée / The Crossing** (Frantzia - Alemania - Txekiako Errepublika) / Florence Miailhe (Frantzia)
- **Le cormoran / The Cormoran** (Frantzia) / Lubna Playoust (Italia) - Film laburra
- **Les filles du feu / My Friends and the Fire** (Frantzia) / Laura Rius Aran (Espainia) - Film ertaina
- **Mi iubita, mon amour** (Frantzia) / Noémie Merlant (Frantzia)
- **Nanu Tudor / My Uncle Tudor** (Belgika) / Olga Lucovnicova (Moldaviako Errepublika) - Film laburra
- **Petrov's Flu** (Errusia - Frantzia - Suitza - Alemania) / Kirill Serebrennikov (Errusia)
- **Razzhimaya kulaki / Unclenching the Fists** (Errusia) / Kira Kovalenko (Errusia)
- **Retour à Reims (Fragments) / Returning to Reims** (Frantzia) / Jean-Gabriel Périot (Frantzia)
- **The Souvenir: Part II** (Erresuma Batua) / Joanna Hogg (Erresuma Batua)
- **Un monde / Playground** (Belgika) / Laura Wandel (Belgika)
- **Vortex** (Frantzia) / Gaspar Noé (Argentina)
- **Xia wu guo qu le yi ban / Day is Done** (Txina) / Zhang Dalei (Txina) - Film laburra


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Perlak
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# Perlak

Espainian erakutsi gabeko urteko film luze nabarmenen aukeraketa. Sail honetako filmek kritikaren txaloak edo/eta sariak jaso dituzte nazioarteko beste zinema-jaialdi batzuetan.

Perlak saileko film guztiak dira Donostiako Udalaren babespeko Donostia Hiria Publikoaren Saria irabazteko hautagai. Esan behar da filmaren lehen proiekziora datozen ikusleek erabakitzen dutela saria.

Donostia Hiria Publikoaren Saria bi azpisariz osatua dago: Film Onenaren saria, 50.000 eurokoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 eurokoa.

Donostia Hiria Publikoaren Saria filmaren Espainiako banatzaileari ematen zaio.

## Lehiaketan

- **Competencia oficial / Official Competition** (Espainia - Argentina) / Gastón Duprat (Argentina), Mariano Cohn (Argentina) INAUGURAZIOA
- **Benedetta** (Frantzia- Herbehereak) / Paul Verhoeven (Herbehereak)
- **Guzen to sozo / Wheel of Fortune and Fantasy** (Japonia) / Ryusuke Hamaguchi (Japonia)
- **Jane par Charlotte / Jane by Charlotte** (Frantzia) / Charlotte Gainsbourg (Erresuma Batua)
- **La croisade / The Crusade** (Frantzia) / Louis Garrel (Frantzia)
- **Les illusions perdues / Lost Illusions** (Frantzia) / Xavier Giannoli (Frantzia)
- **Les intranquilles / The Restless** (Belgika - Frantzia) / Joachim Lafosse (Belgika)
- **Ouistreham / Between Two Worlds** (Frantzia) / Emmanuel Carrère (Frantzia)
- **Petite maman** (Frantzia) / Céline Sciamma (Frantzia)
- **Re dai wang shi / Are You Lonesome Tonight?** (Txina) / Wen Shipei (Txina)
- **Red Rocket** (AEB) / Sean Baker (AEB)
- **The French Dispatch** (AEB) / Wes Anderson (AEB)
- **The Power of the Dog** (Zeelanda Berria - Australia) / Jane Campion (Zeelanda Berria)
- **Tout s’est bien passé / Everything Went Fine** (Frantzia) / François Ozon (Frantzia)

## Lehiaketatik kanpo

- **The Velvet Underground** (AEB) / Todd Haynes (AEB) KLAUSURAKO FILMA
- **Drive My Car** (Japonia) / Ryusuke Hamaguchi (Japonia)
- **Titane** (Frantzia) / Julia Ducournau (Frantzia)


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
TABAKALERA
Nest
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# Nest

Nest Donostia Zinemaldian zinema-ikasleentzat egiten den film laburren nazioarteko lehiaketa da. Mundu osoko zinema-eskoletako ikasleak biltzen dira, beren lanak aukeratuak izan ondoren, beren film laburren emanaldietan, solasaldietan eta industriako profesionalek ematen dituzten eskola magistraletan parte har dezaten. Hautatutako lanen artean, bereziki sortutako epaimahai batek Nest Saria aukeratzen du. Sari hori hautatutako proiektuaren zuzendariari ematen zaio, zeinak 10.000 euro jasotzen dituen.

Edizio honetan, 20 urte bete ditu Nestek eta Zinemaldiak programa berezi bat antolatu zuten: argitalpen bat, podcast bat, oroitzapenezko bideo bat eta master classak egon ziren 69. edizio honetan. Halaber, urrian eta azaroan zehar luzatu zen programazioa Zinemaldia + Plus programaren bidez.

Donostia Zinemaldiak eta Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak Nest saila elkarrekin antolatzen dute.

## Lehiaketan

- **À la recherche d'Aline** (Suitza) / Rokhaya Marieme Balde (Senegal)
  HEAD - Genève (Suitza) - Film laburra
- **After a room** (Erresuma Batua - Herbehereak - Suitza) / Naomi Pacifique (Suitza)
  London Film School (Erresuma Batua) - Film laburra
- **Algo así como la noche** (Espainia) / Alván Prado (Txile)
  EFTI (Espainia) - Film laburra
- **Crashing Waves** (AEB) / Lucy Kerr (AEB)
  California Institute of the Arts (CalArts) (AEB) - Film laburra
- **Fantasma neon / Neon Phantom** (Brasil) / Leonardo Martinelli (Brasil)
  Pontifícia Universidade Católica do Rio de Janeiro (PUC-Rio) (Brasil) - Film laburra
- **Hullet / The Hole** (Danimarka) / Christoffer Ansel (Danimarka)
  The National Film School of Denmark (Danimarka) - Film laburra
- **Ob scena** (Argentina) / Paloma Orlandini Castro (Argentina)
  Universidad Nacional de San Martín (Argentina) - Film laburra
- **Ospalky / Rheum** (Eslovakia) / Kateřina Hroníková (Txekiar Errepublika)
  Academy of Music and Performing Arts (FTF VSMU) (Eslovakia) - Film laburra
- **Planuri de vacanta / Summer Planning** (Errumania) / Alexandru Mironescu (Errumania)
  UNATC I.L. Caragiale (Errumania) - Film laburra
- **Podul de piatrâ / Pont de pedra** (Espainia) / Artur-Pol Camprubí (Espainia)
  Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE (Espainia) - Film laburra
- **Rondinella / Little Swallow** (Suitza) / Nikita Merlini (Suitza)
  ECAL / Ecole cantonale d'art de Lausanne (Suitza) - Film laburra
- **U šumi / In the Woods** (Kroazia) / Sara Grgurić (Kroazia)
  Academy of Dramatic Arts, Zagreb (Kroazia) - Film laburra
- **Ye xing ren min gong yuan / A Nocturnal Roam** (Txina) / Feng Yi (Txina)
  China Film Art Research Center (Txina) - Film laburra
- **Yearlings** (Frantzia) / Mélanie Akoka (Frantzia)
  NYU Tisch Grad Film (AEB) - Film laburra

# Lehiazkoak ez diren sailak


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
basque
culinary
center
NESPRESSO
Culinary
Zinema
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# Culinary Zinema

Berlingo nazioarteko zinema-jaialdiarekin elkarlanean sortu, eta Basque Culinary Centerrekin lankidetzan antolatutako saila da, lehiaketaz kanpokoa. Sail honen helburua da zinema, gastronomia eta elikadurarekin lotura duten hezkuntza, zientzia eta nekazaritzako jarduerak egitea. Gastronomiarekin loturiko proposamen zinematografikoen hautaketa bat dago, eta proposamen bakoitzari loturiko afari tematiko bat.

Culinary Zinema sailaren babeslea Nespresso marka dugu.

- **Las huellas de elBulli** (Espainia) / Iñigo Ruiz Aquerreta (Espainia), José Larraza (Espainia) INAUGURAZIOA – Film ertaina
- **Délicieux / Delicious** (Frantzia) / Éric Besnard (Frantzia) KLAUSURAKO FILMA
- **Michelin Stars II: Nordic by Nature** (Danimarka - Espainia) / Rasmus Dinesen (Danimarka)
- **Reinventing Mirazur** (Erresuma Batua - AEB - Japonia - Suitza) / Franck Ribière (Frantzia), Vérane Frédiani (Frantzia)
- **The Pursuit of Perfection** (Japonia) / Toshimichi Saito (Japonia)

# Made in Spain

fundación sgae

# Made in Spain

Lehiaketaz kanpoko sail honetan, urte barruan Espainian egindako zinemaren isla diren filmen aukeraketa bat eskaintzen da. Espainian estreinaturiko zein estreinatu gabeko lanak izan daitezke, eta Zinemaldiak nazioartean hedatzeko plataforma bat eskaintzen die film horiei.

Made in Spain sailak SGAE fundazioa du kolaboratzaile.

- **Ama** (Espainia) / Júlia de Paz (Espainia)
- **Buñuel, un cineasta surrealista / Buñuel, a Surrealist Filmmaker** (Espainia) / Javier Espada (Espainia)
- **Destello Bravío** (Espainia) / Ainhoa Rodríguez (Espainia)
- **El año del descubrimiento / The Year of the Discovery** (Espainia - Suitza) / Luis López Carrasco (Espainia)
- **El ventre del mar / The Belly of the Sea** (Espainia) / Agustí Villaronga (Espainia)
- **Hombre muerto no sabe vivir / A Dead Man Cannot Live** (Espainia) / Ezekiel Montes (Espainia)
- **Sedimentos / Sediments** (Espainia) / Adrián Silvestre (Espainia)
- **Un blues per a Teheran / Tehran Blues** (Espainia) / Javier Tolentino (Espainia)

# Zinemira

# Zinemira

Euskal zinemari eskainitako saila da eta Donostia Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatzen dute, Irizar eta EITBk babestuta eta Euskadiko Filmategiaren, EPEren, IBAIAren eta Zineuskadiren lankidetzarekin.

Donostia Zinemaldiko programazioaren barruan mundu mailan estreinatzen diren eta gutxienez %20 euskal ekoizpena duten eta/edo hizkuntza nagusi bezala euskara eta/edo euskal komumitate gaitzat dituzten film luze guztiak Euskal Zinemaren Irizar enpresak babestutako Irizar Saria lortzeko lehiatzen dira.

Zinemira sailaren barruan, era berean, Kimuak katalogoko film laburren aukeraketa ere izaten da. Kimuak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Euskadiko Filmategiaren arteko ekimena da, eta helburua urteko film labur nabarmenenak zabaltzea da. Gainera, aurten *Itxitik* pelikula ere programatu zen profesionalentzako emanaldi bakarrean; konfinamenduari buruzko filma da, zazpi film laburrez osatua, Zineuskadik abiaraziko deialdi bati esker egindakoa.

Donostia Zinemaldiak eta EPE eta IBAIA ekoizle-elkarteek Zinemira Saria ematen dute euskal zinemagintzako pertsona nabarmen baten ibilbidea saritzeko.

- **No somos nada / We Are Nothing** (Espainia - Peru) / Javier Corcuera (Peru) INAUGURAZIOA
- **Aztarnak - Huellas / Imprints** (Espainia) / Maru Solores (Espainia) KLAUSURAKO FILMA
- **Bolante baten historia / Story of a Steering Wheel** (Espainia) / Iñaki Alforja (Espainia), Iban Toledo (Espainia)
- **El radioaficionado / The Radio Amateur (Irratitzailea)** (Espainia) / Iker Elorrieta (Espainia)
- **Erlauntza / The Hive** (Espainia) / Mireia Gabilondo (Espainia)
- **Fantasía** (Espainia) / Aitor Merino (Espainia). Ikusmira Berriak II
- **Ilargi Guztiak. Todas las lunas / All the Moons** (Espainia - Frantzia) / Igor Legarreta (Espainia)
- **Kuartk Valley** (Espainia) / Maider Oleaga (Espainia)
- **O gemer / The Moaning (Intziria)** (Espainia) / Xabier Erkizia (Espainia)
- **Pandemic Tour 2020 Belako** (Espainia) / Hernán Zin (Argentina)
- **Paperezko Hegoak** (Espainia) / Josu Martinez (Espainia), Samara Velte (Espainia)
- **Azaletik azalera / Skin to Skin** (Espainia) / Mel Arranz (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Berak baleki / If They Knew** (Espainia) / Aitor Gametxo (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Heltzear** (Espainia) / Mikel Gurrea (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra / Zabaltegi-Tabakalera
- **Inner Outer Space** (Espainia) / Laida Lertxundi (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Resonancias / Resonances (Oihartzunak)** (Espainia) / Iñigo Aranburu (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Trumoiak / Thunder** (Espainia) / Iker Maguregi (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Ur azpian lore / Flower under Water** (Espainia) / Aitor Oñederra (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Zerua blu / Blue Sky** (Espainia) / Lur Olaizola (Espainia). Zinemira Kimuak - Film laburra
- **Etxean / Home** (Espainia) / Mikel Rueda (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra
- **Hikikomori** (Espainia) / Borja Crespo (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra
- **Los días que (nunca) fueron (Izan (ez) ziren egunak )** (Espainia) / Kevin Iglesias (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra
- **Kinka** (Espainia) / Maider Oleaga (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra
- **Serendipia** (Espainia) / Iban del Campo (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra
- **Tartea** (Espainia) / Imanol Gómez de Segura (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra
- **Vatios** (Espainia) / David Pérez Sañudo (Espainia). Zinemira Itxitik - Film laburra

# Film sorpresa

AMENABAR

# Film sorpresa

Donostia Zinemaldiaren 69. edizioko film sorpresa *Spencer* izan zen, Pablo Larrain txiletarraren lan berria. Veneziako zinema-jaialdian estreinatu zen filmeko protagonistak, Kristen Stewart aktoreak, Galesko Diana printzesaren rola egiten du.

- **Spencer** (Alemania - Erresuma Batua - Txile) / Pablo Larraín (Txile)

# Haurrentzako zinema

# Haurrentzako zinema

Donostia Zinemaldiak hiru hamarkada baino gehiago daramatza Haur Zinema sailaren bidez zinema txikienei hurbiltzen, eta euskarara bikoiztutako filmen estreinaldiak eskaintzen ditu –Zineuskadiren lankidetzari esker, Zinema euskaraz programaren barruan-, batik bat ikusleen belaunaldi berriei zuzenduta.

Zinemaldiko asteburuetan, familiei zuzendutako saioak programatzen dira hiriko zenbait aretotan.

Zinemaldiko Kolaboratzaile Ofiziala den Amenabarrek Haur Zinema atala babesten du.

- **Bihurri, jauretxetik kale gorrira / Trouble** (Kanada - AEB) / Kevin Johnson (AEB)
- **Boonie Bears: Abentura Historiaurrean / Boonie Bears: Blast into the Past** (Txina) / Leon Ding (Txina)
- **Dragoiaren gidaria / Dragon Rider** (Alemania) / Tomer Eshed (Israel)
- **Elfinak / The Elfkins - Baking a Difference** (Alemania) / Ute von Münchow-Pohl (Alemania)
- **Koko, dragoi txikia. Oihanean / Coconut the Little Dragon into the Jungle** (Alemania) / Anthony Power (Alemania)
- **Stardog & Turbocat** (Erresuma Batua) / Ben Smith (Erresuma Batua)

# Belodromoa ikastetxeetan

Donostia International Physics Center

EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA

# Belodromoa ikastetxeetan

Hirugarren urtez jarraian, Donostia International Physics Centerrek (DIPC), Euskadiko Filmategiak eta Donostia Zinemaldiak ikastetxeetarako film bat programatu zuten Belodromoa ikastetxeetan ekimenaren bidez. *Tadeo Jones 2: Midas erregearen sekretua* (*Tadeo Jones 2: El secreto del rey Midas*) izan zen aurtengo pelikula, eta 6-11 urteko milaka ikasle gipuzkoarrek gozatu ahal izan zuten ikasgelan, okasiorako espresuki euskarara bikoiztuta. Emanaldian Maria Intxaustegi itsaspeko arkeologoaren bideo bat ere ikusgai egon zen; bertan, filma aurkeztu eta mundu osoan zehar murgildutako ondarea ikertzen izandako esperientziaz hitz egin zuen.

- **Tadeo Jones 2: Midas erregearen sekretua / Tad, the Lost Explorer, and the Secret of King Midas**
(Espainia) / Enrique Gato (Espainia), David Alonso (Espainia)


SSIFF
Donostia Zinemaldia
Festival de San Sebastián
International Film Festival
EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA
CINÉMATHÈQUE BASQUE
FilmotecaEspañola
Korean Film Archive
한국영상자료원
한국문화원
Centro Cultural Coreano
Flores en el infierno
La edad de oro del cine coreano
www.sansebastianfestival.com
SSIFF
2021
Iraila
Septiembre
17/25
69

# Atzera begirakoa - Loreak infernuan. Koreako zinemaren urrezko aroa

Donostia Zinemaldiak eta Espainiako Filmategiak, Euskadiko Filmategiarekin eta Centro Cultural Coreanorekin lankidetzan, *Loreak infernuan. Koreako zinemaren urrezko aroa* atzerabegirakoa antolatu zuten. Pandemia dela-eta iaz bertan behera gelditu zen zikloak 50. eta 60. hamarkadetako hamar film erakutsi zuten eta liburu monografiko bat ere plazaratu zen, Zinemaldiak, Espainiako Zinematekak eta Centro Cultural Coreano-k argitaratutakoa.

Zikloa Koreako *urrezko aroan* ardaztuta egon zen, zeinetan publiko handiak eskatzen zuen zinema popularra ekoizteko gai izan zen industria zinematografiko bat garatu baitzen Hego Korean, gerraren ondoren herrialde hartako egoera ekonomikoa estua bazen ere, eta Park Chung-hee-ren diktadura militarrak ezarritako kontrola gorabehera. Hala, zuzendari ugariren karrerak finkatu ziren, horien estilo eta ikusminak askotarikoak zirela: batzuek garatzeko bidean zen gizarte moderno bat irudikatzen zuten, eta beste batzuek, ordea, garai hartako bizimodua gogorra zela salatzen zuten.

- **Ji-okhwa / The Flower in Hell** (Hego Korea, 1958) / Shin Sang-ok (Hego Korea)
- **Hanyeo / The Housemaid** (Hego Korea, 1960) / Kim Ki-young (Hego Korea)
- **Lomaenseuppappa / Romantic Papa** (Hego Korea, 1960) / Shin Sang-ok (Hego Korea)
- **Mabu / A Coachman** (Hego Korea, 1961) / Kang Dae-jin (Hego Korea)
- **Obaltan / Aimless Bullet** (Hego Korea, 1961) / Yu Hyun-mok (Hego Korea)
- **Dumangang-a jal itgeora / Farewell Duman River** (Hego Korea, 1962) / Im Kwon-taek (Hego Korea)
- **Yeopansa / A Woman Judge** (Hego Korea, 1962) / Hong Eun-won (Hego Korea)
- **Geom-eun meori / Black Hair** (Hego Korea, 1964) / Lee Man-hee (Hego Korea)
- **Maenbal-ui cheongchun / The Barefooted Young** (Hego Korea, 1964) / Kim Kee-duk (Hego Korea)
- **Angae / Mist** (Hego Korea, 1967) / Kim Soo-yong (Hego Korea)

# Klasikoak

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE
icaa

FilmotecaEspañola

# Klasikoak

Klasikoak, zinema unibertsalaren historiako klasiko zahar eta modernoak berreskuratzen dituen saila, 2018an sortu zen, *L'aventure commence* filmaren aurkezpen gogoangarria egin eta urtebetera. Saio hartan, Thierry Frémaux Cannesko zinema-jaialdiko eta Lumière Institutuko zuzendariak komentatutako emanaldi bat egin zuen. Tabakalerako zinema-aretoan egiten den sail honetan bertsio zaharberrituak proiektatzen dira, garai guztietako film klasikoak maite dituzten ikus-entzuleek goza ditzaten.

Iaz pandemiagatik egin ez zen Klasikoak saila sei filmekin itzuli da aurten –2019an baino hiru film gehiago–, Luis García Berlanga eta Juan Antonio Bardemek, Fernando Fernán-Gómez eta Luis María Delgadok, Francis Ford Coppola eta Bertrand Tavernierrek zuzendutako filmekin, hain zuzen. Espainiako Filmategiak Espainiako hiru klasikoak –García Berlangaren eta Fernán-Gómezen mendeurrenak ospatzeko programatuak– digitalizatu eta zaharberritu ditu.

- **Ça commence aujourd'hui / It All Starts Today** (Frantzia, 1999) / Bertrand Tavernier (Frantzia)
- **Esa pareja feliz / That Happy Couple** (Espainia, 1951) / Luis García Berlanga (Espainia), Juan Antonio Bardem (Espainia)
- **La muerte y el leñador (segmento de Las cuatro verdades) / Death and the Woodcutter (segment of Three Fables of Love)** (Espainia - Italia - Frantzia, 1962) / Luis García Berlanga (Espainia) - Film laburra
- **Manicomio / Asylum** (Espainia, 1953) / Fernando Fernán-Gómez (Peru), Luis María Delgado (Espainia)
- **The Outsiders: The Complete Novel** (AEB, 2005) / Francis Ford Coppola (AEB)
- **The Rain People** (AEB, 1969) / Francis Ford Coppola (AEB)

# Galak

# Donostia Saria emanaldia

# Donostia Saria emanaldia

Marion Cotillardi eman zitzaion Donostia Sariaren testuinguruan, Flore Vasseur zuzendariaren *Bigger Than Us* dokumentala proiektatu zen. Gazte konprometituei ahotsa ematen dien filma Cannesko zinema-jaialdian jada programatu zen, beste film batzuekin batera, ikus-entzuleak klima-aldaketari eta horrek ingurumenean duen eraginari buruz kontzientziatzeko.

- **Bigger Than Us** (Frantzia) / Flore Vasseur (Frantzia)



Flore Vasseur zuzendaria, mikrofonoaren aurrean, Marion Cotillard aktore eta ekoizlea lagun.

# RTVE
# Galak

# RTVE Galak

RTVEren partaidetza duten *Mediterráneo* eta *Érase una vez en Euskadi* filmek estreinaldia izan zuten Donostia Zinemaldiaren 69. edizioan. RTVEk, Zinemaldiko babesle ofizialak, zinemaren alde eman zuen dena aurten ere, lehenik, Donostiatik egin zuen programazio berezi baten bidez, bigarrenik, Zinemaldian ikusi ziren beste film batzuetan parte hartuz, eta azkenik, RTVE-Beste Begirada Sariaren beste edizio bat dela medio.

- **Érase una vez en Euskadi / Once Upon a Time in Euskadi (Bazen Behin Euskadin)** (Espainia) / Manu Gómez (Espainia)
- **Mediterráneo / Mediterraneo: The Law of the Sea** (Espainia - Grezia) / Marcel Barrena (Espainia)




*Érase una vez en Euskadi / Once Upon a Time in Euskadi* filmaren lantaldea, aurtengo lehenbiziko RTVE Galan




Victoria Eugenia Antzokiak hartu zuen *Mediterráneo / Mediterraneo*: *The Law of the Sea* filmaren estreinaldia, RTVE Galen baitan

# Movistar+ Gala

# Movistar+ Gala

*Raphaelismo* Movistar+ plataformaren telesail dokumental originala Movistar+ Galan aurkeztu zen. Deskribapen intimo honek artistaren arrakasta, sekretu, beldur eta ametsetan sakontzen du, argitaratu gabeko ikus-entzunezko materialaren bidez; hala, Raphael bera, bere familia, RLM eta Universal Music Spain zuzenean inplikatzen dituen lehen dokumentala (eta bakarra) da.

Donostia Zinemaldiarekin duen aliantzaren testuinguruan, Zinemaldiaren Media Partnerra den Movistar+-ek Areto Birtuala sortu du. Areto hori Zinemaldiko beste areto bat bihurtu zen, eta Perlak, Zabaltegi-Tabakalera, Horizontes Latinos, Made in Spain eta Zinemira sailetako filmak eskaini zizkien Espainiako eta Andorrako ikusleei.

- **Raphaelismo** (Espainia) / Charlie Arnaiz (Espainia), Alberto Ortega (Espainia)




Raphael, Movistar+ Galan aurkeztutako telesail dokumentalaren protagonista.

# Euskal Zinema Gala

# Euskal Zinema Gala

Euskal Zinema Galan *Hondalea* lana estreinatu zen; Asier Altunak zuzendutako ez-fikziozko filma da, Cristina Iglesias artistak Donostiako Santa Klara uharterako sortu duen lanari buruzkoa.

- **Hondalea: abismo marino / Hondalea: Marine Abyss (Hondalea)** (Espainia) / Asier Altuna (Espainia)




Eneko Goia Donostiako alkatea, Cristina Iglesias artista eta Asier Altuna zinemagilea, *Hondalea* filmaren proiekzioaren aurretik.

# EiTB Gala

# EiTB Gala

Aurtengo EITB Galan *Irabazi arte* telesail berriaren lehen atala aurkeztu zen. Javier García de Vicuñak zuzendu du Pausokaren ekoizpena. Ama galdu eta Bartzelonatik Euskadiko bere jaioterrira bizitzera etorriko den futbolari neska nerabe baten istorioa du oinarri.

- **Irabazi arte** (Espainia) / Javier García de Vicuña (Espainia) - Telesaila
  Telesaila (1. kapitulua)




*Irabazi arte* telesaila aurkeztu zuten EiTB Galan.

# Loterías y Apuestas del Estadoren emanaldi berezia

LOTERÍAS
Y APUESTAS DEL ESTADO

# Loterías y Apuestas del Estadoren emanaldi berezia

Loterías y Apuestas del Estado entitateak, Zinemaldia 70: Historia posible guztiak proiektuaren babesleak, zoriak zeregin garrantzitsua duen film baten emanaldi berezia eskaini zuen 69. edizioan. *Buñuel en el laberinto de las tortugas* (2019) animazio-filma –Salvador Simók zuzendua– eman zen, non Luis Buñuelen *Las Hurdes, tierra sin pan* (1933) dokumental enblematikoaren filmaketa birsortu baitu Simók.

- **Buñuel en el laberinto de las tortugas** (Espainia, 2019) / Salvador Simó (Espainia)




José Luis Rebordinos Donostia Zinemaldiko zuzendaria eta Jesús Huerta Loterías y Apuestas del Estado-ko presidentea, María Luisa Núñez García entitateko prentsa arduradunarekin.

# FIPRESCI Sari Nagusia

# FIPRESCI Sari Nagusia

Chloé Zhaok zuzendutako *Nomadland* filmak, 2021eko FIPRESCI Sari Nagusia lortu zuen, FIPRESCI Zinema Kritikarien Nazioarteko Federazioko kideek 2021eko film onena dela erabaki ostean. Bozketan mundu osoko 633 kritikarik hartu zuten parte, eta azkenik, ekoizpen estatubatuarra hautatu dute 2020ko uztailaren 1etik aurrera estreinatutako film guztien artetik.

- **Nomadland** (AEB) / Chloé Zhao (Txina)

# Films-to-Be

# Films-to-Be

Donostia Zinemaldiaren 69. edizio honetan, Industria Sailak bere jardueren aurrez aurreko formatua berreskuratu du, baina bertaratzeko aukera izan ez duten pertsonei **Industria Online** atalaren bidez jarduerotan parte hartzeko aukera eman die.

Horrela, aurtengo edizioan hamargarren urteurrena bete duen **Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa** The Industry Club-en egin da. Iraun dituen hiru egunetan (irailaren 20a, 21a eta 22a), hautatutako proiektuen arduradunek hitzorduen agenda bat izan dute zinema-industriako profesionalekin, eta hilaren 22an online hitzorduak egin ahal izan ziren.

**Focus on** jarduerak Georgia izan du ardatz aurten, eta Georgiako zinema-industriako hamar profesionalez osaturiko delegazio bat Zinemaldira etorri da jaialdia bertatik bertara ezagutzera eta Industria Sailaren jardueretan parte hartzera.

Bestalde, **Ikusmira Berriak** egonaldi-programak Zinemaldian burutu du martxoa eta apirila bitartean hasi zuen bidea, eta proiektuak zinema-industriara aurkeztu dira aurrez aurreko eta *online* hitzorduen bidez.

**Europa-Latinoamerika Foroa**ren egun beretan, **WIP Latam** eta **WIP Europa**ko filmak ere proiektatu dira Principe zinema-aretoetan, eta online ikusi ahal izan dira Zinemaldiko Bideotekaren bidez, aretoan proiektatu ondoren eta Zinemaldiaren amaiera arte.

Irailaren 23an, **Zinemaldia & Technology** ekimenaren laugarren edizioa egin zen Tabakalerako Z Aretoan. **Zinemaldia Startup Challenge** lehiaketan hautatutako bost proiektuak aurkeztu ondoren, mahai-inguru bat egon zen. Jardunaldia streaming bidez jarraitu ahal izan zen Zinemaldiaren webgunean.

**Pentsamendua eta Eztabaida** sailak ikus-entzunezkoen arloko inklusioari eta aniztasunari buruzko bi mahai-inguru eskaini zituen, besteak beste, eta European Film Forum ere bere gain hartu zuen, Europa Creativa MEDIArekin elkarlanean antolatutako ikus-entzunezkoei buruzko hausnarketa bultzatzen duen plataforma.

IBAIAk antolatzen duen **Lau Haizetara** Dokumentalen Koprodukzio Foroari dagokionez, hautatutako proiektuen ohiko pitching-saioa egin zen San Telmo Museoko Ekitaldi Aretoan, hilaren 22an, *commissioning* editor zeritzenez osaturiko batzorde baten aurrean.

**The Industry Club**ek, Kursaal zentroan kokatutako guneak, topagune eta lantoki izaten jarraitu du, eta Industria Onlinen eskuragarri egon dira hautatutako proiektu eta filmei buruzko informazioa, baita beste profesional batzuekin harremanetan jartzeko baliabideak ere.

**Industriako 1.625 profesional guztira**
140k online parte hartu zuten
(2020: 1.185 akreditatu, 487 online akreditatu)

**1.097**
enpresa
(2020: 870 enpresa)

**60**
herrialde
(2020: 54 herrialde)

Koprodukzio Foroko **itzorduak**: 584 (2020: 578)

**Zinemaldia Startup Challenge** bertaratutakoak: 57
Online ikustaldiak: 242

**WIP Latam**era bertaratutakoak: 220
Aurrez aurre: 91
Online ikustaldiak: 129

**WIP Europa**ra bertaratutakoak: 194
Aurrez aurre: 88
Online ikustaldiak: 106

# Films-to-Be

## Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroa

**Inskribatutako proiektuak:**
**22** herrialdetako **200** proiektu
(2020. urtean, 235)

**Aukeratutako proiektuak:**
**14**

***One to one* hitzorduak:**
**509** *one to one* bilera
(2000. urtean, 197)

Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa Europan eta Latinoamerikan **garapen-fasean dauden proiektu zinematografikoak** aurkezteko plataforma da, aurrez grabatutako aurkezpen bat (*pitching*-ak) eta proiektuen ordezkarien (aurretik deialdia eta hautaketa eginda) eta interesa duten profesionalen arteko ***one to one*** bilerak barne hartzen dituena.

Koprodukzio Foroa aurrez aurre egin da aurten, Zinemaldira etortzerik izan ez zuten hiru proiekturen kasuan izan ezik. *Pitching*ek aurrez grabatutako bideoen formatua izan zuten. Asteazkenean, *online* akreditatutako profesionalek aukera izan zuten Zoom bidez aukeratutako proiektuekin hitzorduak egiteko.

Aurten, hamargarren ediziora iritsi da Foroa. Besteak beste, honako proiektu hartu ditu urte hauetan guztiotan: Pablo Agüeroren *Akelarre*, Goya sarien azken edizioan bost sari irabazi zituena; Maite Alberdiren *El agente topo / The Mole Agent*, 2021ean dokumental onenaren Oscar sarirako izendatua; eta Jayro Bustamanteren *La llorona*, Urrezko Globoetan ingelesez besteko film onenaren sarirako izendatua. Gainera, Clara Roqueten opera prima, *Libertad*, Cannesko Semaine de la Critique-n hautatu zuten aurten, eta Teodora Ana Mihairen *La Civil*, 2016an Foroan aukeratutakoa, Courage saria irabazi du aurtengo Cannesko Un Certain Regard sailean.

### Hautatutako proiektuak

- **Alemania** (Argentina - Alemania) ***– Online***
  Maria Zanetti (Argentina)
  **Ekoizpena:** Tarea Fina

- **Camionero** (Espania - Argentina)
  Francisco Marise (Argentina)
  **Ekoizpena:** Lolita Films

- **Chin-Gone** (Mexiko - Brasil - Kanada)
  Johnny Ma (Txina)
  **Ekoizpena:** Desvia Produçoes

- **Cuerpo Celeste / Celeste** (Txile - Italia - Frantzia)
  Nayra Ilic García (Txile)
  **Ekoizpena:** Oro Films

- **Donde comienza el río / Where the River Begins** (Kolonbia - Kanada - Frantzia)
  Juan Andrés Arango (Kolonbia)
  **Ekoizpena:** Inercia Películas

- **El porvenir de la mirada** (Txile)
  Cristian Leighton (Txile)
  **Ekoizpena:** Storyboard Media

- **El viento que arrasa** (Argentina - Uruguai) ***– Online***
  Paula Hernández (Argentina)
  **Ekoizpena:** Cimarrón Cine

- **Espectro / Spectrum** (Argentina)
  Inés Barrionuevo (Argentina)
  **Ekoizpena:** Gualicho Cine

- **Gente de noche / People by Night** (Argentina) ***– Online***
  Romina Paula (Argentina)
  **Ekoizpena:** Varsovia Films

- **La sucesión / The Succession** (Argentina - Uruguai)
  Martin Kalina (Argentina)
  **Ekoizpena:** Pasto Cine

- **La Virgen de la Tosquera / The Virgin of the Quarry Lake** (Argentina - Mexiko)
  Laura Casabé (Argentina)
  **Ekoizpena:** Ajimolido Films

# Films-to-Be

## Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroa

- **Las muertes pasajeras / The Passing Deaths** (Uruguai)
  Agustín Banchero (Uruguai)
  **Ekoizpena:** Tarkiofilm

- **Quédate quieto / Stay Still** (Peru)
  Joanna Lombardi (Peru)
  **Ekoizpena:** El árbol azul

- **Sarah** (Txile - Puerto Rico)
  Álvaro Aponte Centeno (Puerto Rico)
  **Ekoizpena:** Audiovisual Don Quijote Films

### Sariak

**Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroko Proiektu Onenari Saria**

**Camionero**, Francisco Marise (Argentina), Lolita Filmsek ekoiztua (Espainia - Argentina)

***Epaimahaia:*** Marisa Fernández Armenteros (Espainia), Eva Morsch Kihn (Frantzia) eta Pamela Bienzobas (Txile)

**DALE! Saria (Europa – Latinoamerika Garapena)**

**Donde comienza el río / Where the River Begins**, Juan Andrés Arango (Kolonbia), Inercia Películasek ekoiztua (Kolonbia - Kanada - Frantzia)

***Epaimahaia:*** Alexandra Lebret (Frantzia), Germán Monje (Bolivia) eta Pablo Pérez de Lema (Espainia)

**ArteKino International Prize**

**Alemania**, Maria Zanetti (Argentina), Tarea Finak ekoiztua (Argentina - Alemania)

***Epaimahaia:*** Rémi Burah

### Proyecta

2021ean jardueran parte hartuko duen ekoizle europarra **Javier Rebollo** da, Lolita Films ekoiztetxekoa (Espainia – Argentina), *Camionero* lanagatik.

### Kolaboratzaileak

Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroa Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren babesari eta Europa Creativa MEDIAri esker gauzatu ahal izan da.

Horretaz gain, beste erakunde eta elkarte batzuen laguntza ere izan du, hala nola: EFAD (Zinema Agentzietako Zuzendarien Europako Elkartea), CAACI (Iberoamerikako Ikus-entzunezko Agintaritza Zinematografikoen Konferentzia), Marché du Film-Canneseko Zinema Jaialdia, Ventana Sur, ArteKino International, EPE-APV (Euskal Ekoizleen Elkartea), Etxepare Euskal Institutua, Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi, Europa Distribution, IBAIA (Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartea), LatAm eta Zineuskadi.

# Films-to-Be

## VII. Ikusmira berriak

**75** *one to one* **hitzordu**
(2020: 81)

Ikusmira BERRIAK ikus-entzunezko proiektuei laguntzeko programa bat da. Tabakalera-Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren eta Donostiako Zinemaldiaren arteko lankidetzatik sortua eta 2018tik, Elías Querejeta Zine Eskola du bazkide.

IKUSMIRA BERRIAK programaren helburu nagusia ikus-entzunezko sorkuntza bultzatzea da, programa bi ardatzen inguruan egituratuz: formakuntza eta ekoizpena.

IKUSMIRA BERRIAK proiektuak garatzeko urte bateko egonaldi programa bat eta ikus-entzunezko lan berritzaileak ekoizteko laguntza-plan bat aurreikusten ditu.

Egonaldiaren helburua garapen sortzailerako espazioa, testuingurua eta denbora eskaintzea da. Parte-hartzaileek zortzi aste dituzte beren proiektuak zehazteko, eta, aste horietan, beren obretara egokitutako jardueretan parte hartzen dute. Hainbat tailer programatzen dira hautatutako proiektuen arabera, eta industriako profesionalen aholkularitza jasotzen dute.

### Hautatutako proiektuak

- **Hasta que el lugar se haga improbable / Until the Place Becomes Improbable** (Espainia - Argentina)

  Magdalena Orellana (Argentina)

- **La gruta del viento / The Wind's Cave** (Argentina)

  Eduardo Crespo (Argentina)

- **Manantial** (Espainia)

  Manuel Muñoz Rivas (Espainia)

- **Wandervogel** (AEB)

  Mina Fitzpatrick (AEB)

- **Y así seguirán las cosas / And thus it will go on** (Espainia)

  Marina Palacio (Espainia)

### Saria

**Irusoin Postprodukzio Saria**

Irusoin Postprodukzio Sariaren bitartez, soinu-postprodukzioa (diseinua, nahasketa eta muntaketa), kolore-postprodukzioa, grafismo-lanak eta DCP master bat eskaintzen dira.

**La gruta del viento / The Wind's Cave** (Argentina)
Eduardo Crespo (Argentina)

# Films-to-Be

## Zinemaldia Startup Challenge

**57** bertaratuak
+ **242** streaming bidezko bistaratzeak

2019an, Donostia Zinemaldiak teknologia berrien eta ikus-entzunezkoen sektorearen arteko harremanak estutzeko gune erreferente gisa kokatu nahi izan zuen bere burua. Horrela sortu zen Zinemaldia Startup Challenge, Zinemaldia & Technology-ren ekimen nagusia eta Eusko Jaurlaritzak sustatua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bidez. Lehiaketa honek industria zinematografikoari aplikatutako enpresa-proiektu europarren sorrera sustatzearen aldeko apustua egiten du.

Aurten, jardunaldia aurrez aurre egin da, Zinemaldiaren webgunearen bidez jarraitu ahal izateko aukerarekin. Hautatutako bost proiektuek Zinemaldia Startup Challenge saria, 10.000 euro gordinekoa, jasotzeko aukera zuten, eta, lehiaketan parte hartzeagatik, Euskadiko Parke Teknologikoen Sarean kokatutako BICetako batean urte batez inkubazio-gune bat doan eskuratzeko aukera zuten.

### Hautatutako proiektuak

(37 proiektu Europako 7 herrialdekoak)

- **Kinetix – proiektu irabazlea**
  Yassine Tahi, Henri Mirande (Frantzia)
- **Klipworks**
  Asger Riis Rasmussen, Peter Nikolaj Trnka (Danimarka)
- **OWO Entertainment**
  José Fuertes, Arantza Echevarría (Espainia)
- **Panoramic Plates**
  Carolina Vita, Daniel Gonzalez Hinojosa (Espainia)
- **Raccorder**
  Sara Azcona, Diana Franganillo (Espainia)

### Kolaboratzaileak

Jardunaldi hau Donostia Zinemaldiak antolatzen du, Tecnalia eta Tabakalerarekin (2deo ikus-entzunezko laborategiaren bidez) batera eta, gainera, Vicomtech ikerketa aplikatuko zentroaren eta Europa Creativa MEDIA erakundearen laguntza du, European Film Forum ekimenaren bidez.

# Films-to-Be

## WIP Latam

Edizio honetan **161** film jaso dira guztira (2020ean, 228)

**91** aurrez-aurreko bertaratuak eta **129** online

Hitzordu honen helburua Latinoamerikako film luzeen amaiera erraztea da, behin filmatu ondoren postprodukzioaren faseari eta ondoren zinema-aretoetan estreinatzeari zailtasunez heltzen diotenak. Behin-behineko egoeran dauden Latinoamerikako filmen programa bat aurkezten zaie profesionalei (ekoizleak, banatzaileak eta erakusleak, salmenta-enpresak, telebistak, industria teknikoak, laguntza-funtsak, erakundeak eta zinema-jaialdiak). Profesional hauek dira lan horiek publikoarengana iristen lagundu dezaketenak.

Hasiera-hasieratik, Zinema Eraikitzen / WIP Latam programak Ibermedia programaren eta Industriaren Sarian parte hartzen duten enpresen laguntza izan du.

### Hautaketa

- **Dos estaciones** (Mexiko - Frantzia - AEB)
  Juan Pablo González (Mexiko)
  VIII Foro de Coproducción Europa-América Latina
- **La hija de todas las rabias / Daughter of Rage** (Nikaragua - Mexiko - Herbehereak - Alemania – Frantzia - Norvegia). Laura Baumeister (Nikaragua)
  VIII Foro de Coproducción Europa-América Latina
- **La piel pulpo / Octopus Skin** (Ekuador - Grezia - Mexiko - Alemania). Ana Cristina Barragán (Ekuador)
- **Pornomelancolía / Pornomelancholia** (Argentina - Brasil - Frantzia - Mexiko). Manuel Abramovich (Argentina)
  Ikusmira Berriak IV
- **Un varón / A Male** (Kolonbia - Frantzia - Herbehereak - Alemania). Fabián Hernández (Kolonbia)
- **Vicenta B.** (Kuba - Kolonbia - Norvegia - Frantzia)
  Carlos Lechuga (Kuba

### Sariak

**WIP Latam Industria Saria**. Ad Hoc Studios, Deluxe Content Services SPAIN S.L., Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones, No Problem Sonido eta Sherlock Films enpresek ematen dute saria. Film baten postprodukzio-zerbitzuetan datza saria –ingelesez azpititulaturiko DCP (Digital Cinema Package) kopia egin arte– eta Espainian barrena banatzea:

**La hija de todas las rabias / Daughter of Rage**, Laura Baumeister (Nikaragua), Felipa Filmsek ekoiztua (Nikaragua - Mexiko - Herbehereak - Alemania - Frantzia - Norvegia)

**WIP Latam Onenarentzako EGEDA Platino Industria Saria**, 30.000 euro gordinekoa ekoizle nagusiarentza:

**Vicenta B.**, Carlos Lechuga (Kuba), Cacha Filmsek ekoiztua (Kuba - Kolonbia - Norvegia - Frantzia)

### Kolaboratzaileak

**WIP Latam**ek enpresa eta erakunde hauen babesa du: Ad Hoc Studios, Deluxe Content Services SPAIN S.L., Dolby Iberia, EGEDA, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones, No Problem Sonido, Programa Ibermedia, Sherlock Films eta aurten berritasun gisa Marché du Film-Festival de Cannes eta Projeto Paradiso.

# Films-to-Be

## WIP Europa

Edizio honetan **49 film** jaso dira guztira (2020ean, 51)

**88** aurrez-aurreko bertaratuak eta **106** online

WIP Europa Glocal in Progress-en eboluzioa da, orain postprodukzio fasean dauden film europar guztietara zabaltzen dena. Gainera, WIP Europak postprodukzio fasean dauden sei film aurkezten ditu ekoizleen, banatzaileen, salmenta-agenteen eta programatzaileen aurrean, besteak beste, horiek amaitzen eta nazioartean zirkulatzen lagundu baitezakete.

WIP Europan hautatzen diren filmek WIP Europa Industria Saria irabazteko aukera dute, bai eta Industriaren Saria irabazten duen filmarentzat WIP Europa Saria eskuratzeko ere.

WIP Europa moldatuta, Zinemaldiak indartu egin du sorkuntzaren eta industriaren aldeko apustua, eta, horrekin batera, bi zinemagintzak elkartzeko erreferentziazko plataforma bat eratu du, WIP Latam eta Europa – Latinoamerika  Koprodukzio Foroarekin batera.

### Hautaketa

- **Carbon** (Moldaviako Errepublika - Errumania)
  Ion Borș (Moldaviako Errepublika)
- **Didi Shesveneba / A Long Break** (Georgia)
  Davit Pirtskhalava (Georgia)
- **Misión a Marte / Mission to Mars** (Espainia)
  Amat Vallmajor (Espainia)
- **Nina** (Errusia - Georgia)
  Oksana Bychkova (Ukrania)
- **Ya, Nina / Lucky Girl** (Ukrania - Alemania)
  Marysia Nikitiuk (Ukrania)
- **Zamanımızın bir kahramanı / A Hero of Our Time (Un héroe de nuestro tiempo)** (Turkia)
  Mirac Atabey (Turkia)

### Sariak

**WIP Europa Industria Saria**
Ad Hoc Studios, BTeam Pictures, Deluxe Content Services SPAIN S.L., Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones eta No Problem Sonido enpresek ematen dute saria. Film baten postprodukzio-zerbitzuetan datza saria –ingelesez eta gaztelaniaz azpititulaturiko DCP kopia egin arte- eta filmaren banaketa Espainian;

**WIP Europa Saria**
WIP Europa Industria Sariaren film irabazlearen ekoizle gehiengodunarentzako 10.000 euroko saria.

**Carbon**, Ion Borș (Moldaviako Errepublika), Youbescek ekoiztua (Moldaviako Errepublika - Errumania)

### Kolaboratzaileak

**WIP Europa**k enpresa eta erakunde hauen laguntza du: Ad Hoc Studios, BTeam Pictures, Deluxe Content Services SPAIN S.L., Dolby Iberia, EGEDA, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones, No Problem Sonido, Programa Ibermedia eta aurten berritasun gisa Marché du Film-Festival de Cannes.

## Bideoteka

Zinemaldiko Bideotekak industriako profesional akreditatuen eskura jartzen du izena eman duten filmen ikustaldia, lehiaketa amaitu eta hilabetera arte. Tresna horrek aukera ematen die profesional horiei aurrez aurre ikusi ezin izan dituzten filmak ikusteko eta, horrela, balizko akordioak bultzatzeko.

Bideoteka Cinandok, Marché du Film - Festival de Cannes ekimenak sortutako industriako profesionalei zuzendutako plataformak, ematen duen zerbitzua da.

Honako film hauek ikusi ahal izan dira:

• Ikusgai egoteko baimena ematen duten Zinemaldiko sail guztietako film hautatuak.

• X. Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroan hautatutako proiekturen bat edo WIP Latam 2021 nahiz WIP Europa 2021 ataletan hautatutako filmen bat duten zuzendarien lehenagoko film luzeak.

• Plataforman izena emandako film hautatu bakoitzeko, salmenta-eragilearen katalogoko beste film bat, azken urtean ekoiztua.

Urrezko Maskorra irabazi zuen Alina Grigoreren ***Crai Nou / Blue Moon*** izan zen Bideotekan gehien ikusi zen filma.

**96** film eskuragarri Bideotekan
(86 2020an)

**744** ikustaldi Zinemaldiaren
9 egunetan
(1.829 2020an)

**2.071** ikustaldi 2021eko
irailaren 17tik urriaren 25era arte
(3.146 2020an)

## Beste lankidetza-jarduera batzuk

# Donostiako Lau Haizetara XVII. Dokumentalen Koprodukzio Foroa

IBAIA Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak eta Donostiako Zinemaldiako Industria Sailak antolatuta, foroa elkargunea da dokumental-proiektuak finantzatzaile izan daitezkenei eta ikus-entzunezkoen eta zinematografiaren sektoreko adituei ezagutzera emateko. Sektorean dokumentalen alorrean diharduten profesionalentzako topagune bat da ere.

## Hautaketa

- **Bayo Bayo Baby**, Amaia Remírez y Raúl de la Fuente (Espainia)

  **Ekoizpena:** Kanaki Films / Maracaná Films / Bayo Bayo Baby Films Aie

- **Colors of White Rock**, Khoroldorj Choijoovanchig (Frantzia - Mongolia)

  **Ekoizpena:** Petite Maison Production / Icity Films

- **Domingo Domingo**, Laura García Andreu (Espainia)

  **Ekoizpena:** Suicafilms

- **El silencio de la tierra**, Eulogio Romero (Espainia)

  **Ekoizpena:** Diagonal Televisió

- **En busca de la Singla**, Paloma Zapata (Espainia - Alemania)

  **Ekoizpena:** La Fábrica Naranja / Malandar Films / Insfilm Produktion

- **Espacios ocultos**, Helin Celik (Espainia - Austria)

  **Ekoizpena:** Kepler Mission Films S.L.

- **Las cartas perdidas**, Amparo Climent (Espainia)

  **Ekoizpena:** Filmakers Monkeys / Mitad y Mitad Producciones

- **Lucía**, Lorenzo Cioffi (Italia)

  **Ekoizpena:** Ladoc

- **Muerte en Amara**, Aitor González de Langarica Mendizabal (Espainia)

  **Ekoizpena:** Area Audiovisual

- **Negro limbo**, Lorenzo Benítez (Espainia)

  **Ekoizpena:** Antonia Films

- **Ousman, 21000kms para cambiarlo todo**, David Fontseca (Espainia)

  **Ekoizpena:** La Kaseta Ideas Factory

- **Película N.1**, Telmo Ibarburu (Espainia)

  **Ekoizpena:** Arena Comunicación Audiovisual, S.L.

- **The Click Trap**, Peter Porta (Espainia - Frantzia)

  **Ekoizpena:** Polar Star Films/ Yuzu Production

- **Volver a casa**, Catalina Alarcón (Txile)

  **Ekoizpena:** Mimbre Producciones / Pequén Producciones

- **Welcome to New Karabash**, Olga Delane (Polonia - Alemania)

  **Ekoizpena:** Doppelplusultra Filmproduktion Gmbh / Arkana Film Studio

## Sariak

Olga Delaneren **Welcome to New Karabash** da FIPADOC Nazioarteko Koprodukzio Foroaren hurrengo edizioan parte hartzeko aukeratutako proiektua.

Telmo Ibarbururen **Película N.1** filma da DOCSBARCELONAren hurrengo edizioan parte hartzeko aukeratutako proiektua.

Amparo Climenten **Las cartas perdidas** filmak Treeline saria irabazi du, banaketako eta jaialdietako aholkularitzako saria.

Laura García Andreuren **Domingo Domingo** proiektuak irabazi du IBAIA saria, 3.000 euroko balioa duena ekoizleentzat, eta Commissioning Editors paneleko kideek ematen dutena.

## Beste lankidetza-jarduera batzuk

### Proyecta – Ventana Sur (Buenos Aires, Argentina)

Proyecta nazioarteko bazkideak, koproduktoreak eta salmenta-eragileak bilatzen dituzten proiektuen aurkezpena da. Ekimen hau 2018an sortu zen Latinoamerika eta Europaren arteko koprodukzioak bultzatzeko, eta Ventana Surrek, Marché du Filmek eta Donostiako Zinemaldiak elkarlanean antolatzen dute.

2021ean, garapen fasean dauden hamasei proiektu aurkeztuko dira Ventana Sur, Buenos Airesen.

Hautaketa Latinoamerikako hamaika proiektuk eta Europako bost proiektuk osatzen dute, Paulo Roberto de Carvalhok, Javier Martínek eta Clara Massotek hautatuak, eta Ekuadorreko proiektu bat ere barne hartzen du, EAVE Puentes-Europe/Latin America Co-production workshop tailerretik datorrena, Brasil CineMundi bat eta Donostia Zinemaldiko Europa-Latinoamerika hamargarren Koprodukzio Foroan hautatutako proiektu espainiarra ere biltzen ditu.

### Euskal proiektuetarako nazioartekotzeari buruzko aholkularitzak

Europa Creativa Desk MEDIA Euskadi - Zineuskadik, Zinemaldiarekin lankidetzan, nazioarteko bokazioa duten proiektu zinematografikoetarako aholkularitza antolatu du aurten ere. Garapen eta/edo filmatze fasean dauden film luzeen proiektuak dituzten ekoizleei zuzendutako ekimen honek abiapuntu sendoa ematen die beren proiektuak nazioartekotzeko eta Zinemaldian bazkide berriak bilatzeko.

Aurten, Buenapinta Mediako (Espainia) Marisa Fernández Armenteros produktoreak eman du aholkularitza. Aurrez aurreko aholkularitza Zinemaldian bazkide berriak aurkitzeko helburuarekin egin zen. Hautatutako profesionalak beren proiektuak nazioartekotzera bideratzea izan zuen helburu, bai eta bazkideak eta finantzaketa bilatzea ere.

## Beste lankidetza-jarduera batzuk

## Jarduera paraleloak

• MIA elkarteak aurkezten du INFORME MIA 2021 eta MIANIMA 21/22 mentoretza

• 2deo serieak: Telesail propioak

• Zinema eta finantzaketa. Elkar berriro aurkitzeko koktel ona. (Triodos Bank eta Crea SGR)

• Ibermediaren batzorde betearazlearen bilera

• Aurkezpena: Preservación 35

• Ibermedia, CAACI eta FIPCA entitateetako bilera

• Plataforma Audiovisual de Productores Independientes-en (PAP) aurkezpena

• Cine Québec España-ren aurkezpena

• Iberoamerikako LGTBIQ+ zinema-jaialdien topaketa

• Pantallaren Asanblada (Zinema eta Ikus-entzunezko Edukien Jaialdietako Koordinatzaileen Estatuko Federazioa)

• Kasu azterketa. Elkarrekin sortzen: garapena eta koprodukzio kasu arrakastatsuak Espainiaren eta herrialde Baltikoen artean. (Creative Europe MEDIAk Estonian, Lituanian eta Letonian dituen bulegoek eta Euskadiko, Andaluziako, Kataluniako eta Espainiako bulegoekin batera antolatua)

• Iberoamerikako LGTBIQ+ zinema-jaialdietako Works in Progress eta LABS-en aurkezpena

• Mahai-ingurua: Zinema europarra, Espainiatik koprodukziorako aukera (ProFicciók eta PROAk bultzatua)

• Kanariak Fokuan

• Eraldaketa digitalerako adimen artifizialaren gakoak (Tecnaliak antolatua)

• Espainia, Europako Ikus-entzunezkoen Hub-a (Espainiako Kultura, Telekomunikazio eta Ekonomia Ministerioek bultzatua)

• Espainiako film laburrak sustatzeko estrategia eta ekintza berriak (Coordinadora del Cortometraje Español entitateak antolatua)

• Gogoeta Plaza. Zinemaldia eta Zineklubak: iragana, oraina eta geroa. (K Sarien bultzatzaileek antolatutako hausnarketa gunea)

• Mahai-ingurua: Generoa eta aniztasuna politika publiko gisa Iberoamerikan

## Mahai inguruak eta Networking

**Focus on Georgia**

Georgia zinemagintza sendoa duen herrialdea da. Horren erakusgarri ona da Dea Kulumbegashviliren *Dasatskisi / Beginning* filmak lortutako arrakasta; izan ere, Zinemaldiaren aurreko edizioko Sail Ofizialean lehiatu zen eta lau sari irabazi zituen, hala nola film onenaren Urrezko Maskorra. Georgiak, gainera, ikus-entzunezko industriarako pizgarri-programa bat eskaintzen du, herrialdean egindako gastuen % 20-25eskudirutan itzultzeko balio duena.

Gainera, interes handiko kokapen zinematografikoa da, aniztasun geografiko eta arkitektoniko handia duelako eta edozein motatako proiektu zinematografikoetan laguntzeko gai diren langileak dituelako.

10 ekoizlek osatutako Georgiako ordezkaritza: Nino Chichoua, Rusudan Glurjidze, Ketevan Kalandarishvili, Vladimer Katcharava, Nikoloz Khomasuridze, Giorgi Kobalia, Tekla Machavariani, Rati Oneli, George Ovashvili, Giorgi Todria.

**Zinema europarra, Espainiatik koprodukziorako aukera bat**
ProFicciók eta PROAk bultzatuta

**Moderatzailea:** Valérie Delpierre Inicia Films ekoiztetxeko ekoizlea eta ProFicció-ren lehendakaria

**Hizlariak:** Miquel Curanta, Institut Català de les Empreses Culturals (ICEC) erakundeko zuzendaria; Silvia Anoro, Subdirección General de Fomento de la Industria Cinematográfica y Audiovisual (ICAA); Adrià Monés, ekoizlea (Fasten Films) eta Ángeles Hernández, ekoizlea (Mr. Miyagi Films)

Espainian Estatu mailan eta Katalunian dauden koprodukzio minoritarioko lerro berriak aurkezteko mahai-ingurua. Mota horretako koprodukzioek finantzaketa bilatzerakoan dituzten abantailak eta zailtasunak ere aztertu ziren.

**Elkarrekin sortzen: garapena eta koprodukzio kasu arrakastatsuak Espainiaren eta herrialde Baltikoen artean**. Creative Europe MEDIAk Estonian, Lituanian eta Letonian dituen bulegoek eta Euskadiko, Andaluziako, Kataluniako eta Espainiako bulegoekin batera antolatua.

**Moderatzailea:** Álex Navarro (Creative Europe Desk MEDIA Cataluña)

**Hizlaria:** Deialdi irekia: baterako garapen europarra - Ainhoa González (Creative Europe Desk MEDIA Euskadi)

Kasu azterketak *Lobster Soup* - Arūnas Matelis, Algimantė Matelienė (Nominum Films, Lituania), Rafa Moles (SuicaFilms, Balentzia), Uldis Cekulis (VFS, Letonia)

*Constructing Albert* - Marianne Ostrat (Alexandra Films, Estonia), Laura Collado (True Day Films, Bartzelona)

**Koprodukzio aukerak Estonian, Letonian eta Lituanian** - Anu Ernits (Creative Europe Desk MEDIA Estonia), Austėja Milvydaitė (Creative Europe Desk MEDIA Lituania), Uldis Cekulis (VSF Film Letonia)

Networking jardunaldia, Espainiaren eta Baltikoko herrialdeen artean lankidetzaren adibide arrakastatsuak (*Lobster Soup* eta *Constructing Albert*, besteak beste) partekatzeko, lankidetza-sareak sortzea sustatzeko, negozio-aukerak identifikatzeko eta lurralde horietako profesionalen arteko koprodukzioa indartzeko.

# Epaimahaiak

# Epaimahai Ofiziala




Sail Ofizialeko Epaimahai Ofizialak sei sari ematen ditu nahitaez: film onenaren Urrezko Maskorra (ekoizlearentzat), zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra, interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko maskorra, taldeko interpretazio onenaren Zilarrezko maskorra, gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria eta argazki onenaren Epaimahaiaren Saria. Gainera, Epaimahaiak sari berezi bat emateko aukera du.

- Dea Kulumbegashvili, zuzendaria, gidoigilea eta ekoizlea, Georgia (EPAIMAHAIBURUA)
- Maite Alberdi, zuzendaria, gidoigilea eta ekoizlea, Txile
- Audrey Diwan, zuzendaria eta gidoigilea, Libano-Frantzia
- Ted Hope, ekoizlea, AEB
- Susi Sánchez, aktorea, Espainia

## Kutxabank-New Directors Sariaren Epaimahaia

- Mary Burke, ekoizlea (EPAIMAHAIBURUA)
- Irene Escolar, aktorea, Espainia
- Suzanne Lindon, zuzendaria, gidoigilea eta aktorea, Frantzia

## Horizontes Sariaren Epaimahaia

- María Zamora, ekoizlea, Espainia (EPAIMAHAIBURUA)
- Lila Avilés, zuzendaria, gidoigilea eta ekoizlea, Mexiko
- Luciano Monteagudo, kazeteria, zinema-kritikaria eta programatzailea, Argentina

## Zabaltegi-Tabakalera Sariaren Epaimahaia

- Sergio Oksman, zuzendaria, gidoigilea eta ekoizlea, Brasil (EPAIMAHAIBURUA)
- Miriam Heard, zuzendaria, gidoigilea eta aktorea, Gales, Erresuma Batua
- Elena López Riera, zuzendaria, gidoigilea eta programatzailea, Espainia

## Nest Sariaren Epaimahaia

- Isabel Peña, gidoigilea, Espainia (EPAIMAHAIBURUA)
- Jorge Cantos, zuzendaria eta gidoigilea, Espainia
- David Pinheiro Vicente, zuzendaria eta gidoigilea, Portugal
- Elsa Rosengren, zuzendaria eta gidoigilea, Alemania

# Euskal Zinemaren Irizar Sariaren Epaimahaia

- Aitor Arregi, zuzendaria, gidoigilea eta ekoizlea, Oñati, Gipuzkoa, Espainia (EPAIMAHAIBURUA)
- Arantzazu Calleja, musika-konpositorea, Bilbo, Bizkaia, Espainia
- Edurne Portela, idazlea, Santurtzi, Bizkaia, Espainia

# Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroko Proiektu Onenarentzako Sariaren Epaimahaia

- Eva Morsch Kihn, programatzailea, Frantzia
- Pamela Bienzobas, zinema-programatzailea eta -kritikaria, Txile-Frantzia
- Marisa Fernández Armenteros, ekoizlea, Espainia

# RTVE-Beste Begirada Sariaren Epaimahaia

- Concepción Cascajosa, RTVEko Kontseiluko kidea eta Berdintasun Behatokiko presidentea
- Anna Castillo, aktorea, Espainia
- Rosa Zufía, kazetaria, Espainia

# Espainiako Lankidetza Sariaren Epaimahaia

- Elena González González, Kultura Lankidetzarako eta Sustapenerako Saileko burua, AECID, Espainia.
- Ione Hernández, zuzendaria, Espainia
- Ainhoa Gainberri, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirola Departamentuko Nazioarteko Lankidetza Zuzendaritzako teknikaria, Espainia

# Dunia Ayaso Sariaren Epaimahaia

- Celia Rico, zuzendaria, Espainia (EPAIMAHAIBURUA)
- Olatz Beobide, aktorea, Espainia
- Mikel Rueda, zuzendaria, Espainia

# Palmaresa

# Sari ofizialak - FIAPF

## Film onenaren Urrezko Maskorra

*Crai nou / Blue Moon* (Errumania) / Alina Grigore (Errumania)




Gabriela Suciu ekoizlea eta Alina Grigore zinemagilea, *Crai nou / Blue Moon* filmak irabazitako Urrezko Maskorrarekin.

## Epaimahaiaren Sari Berezia

*Earwig* (Erresuma Batua - Frantzia - Belgika) / Lucile Hadzihalilovic (Frantzia)




Lucile Hadzihalilovicek Epaimahaiaren Sari Berezia irabazi zuen *Earwig* filmarekin.

## Zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra

Tea Lindeburg (Danimarka), *Du som er i himlen / As in Heaven* (Danimarka)

## Interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko Maskorra (ex aequo)

Flora Ofelia Hofmann Lindahl (Danimarka), *Du som er i himlen / As in Heaven* (Danimarka)

Jessica Chastain (AEB), *The Eyes of Tammy Faye* (AEB)




Flora Ofelia Hofmann Lindahlek eta Jessica Chastainek interpretazio nagusi onenaren Zilarrezko Maskorra irabazi zuten *ex aequo*.

## Taldeko interpretazio onenaren Zilarrezko Maskorra

*Quién lo impide / Who's Stopping Us* (Espainia) filmaren antzezle taldea: besteak beste, Candela Recio, Pablo Hoyos, Silvio Aguilar, Pablo Gavira, Claudia Navarro, Marta Casado, Rony-Michelle Pinzaru eta Javier Sánchez (Espainia)

## Gidoi onenaren Epaimahaiaren Saria

Terence Davies (Erresuma Batua), *Benediction* (Erresuma Batua)

## Argazki onenaren Epaimahaiaren Saria

Claire Mathon (Frantzia), *Enquête sur un Scandale d'état / Undercover* (Frantzia) / Thierry de Peretti

# Beste sari ofizial batzuk

## Kutxabank-New Directors Saria

50.000 euroko saria da, zuzendariaren eta filmak Espainian duen banatzailearen artean erdibanatzeko.

*Nich'ya / Enante* (Errusia) / Lena Lanskih (Errusia)

**Aipamen berezia**
*Carajita* (Dominikar Errepublika - Argentina) / Silvina Schnicer (Argentina), Ulises Porra (Espainia)

## Horizontes Saria

Horizontes sariaren irabazleak 35.000 euro jasotzen ditu; horietatik 10.000 euro film irabazlearen zuzendariarentzat dira, eta 25.000 euro filma Espainian banatuko duen enpresarentzat.

*Noche de fuego / Prayers for the Stolen* (Mexiko - Alemania - Brasil - Qatar) / Tatiana Huezo (El Salvador)

## Zabaltegi-Tabakalera Saria

Zabaltegi-Tabakalera sariaren irabazleak 20.000 euro jasotzen ditu; horietatik 6.000 euro filmaren zuzendariarentzat dira, eta 14.000 euro, filmaren Espainiako banatzailearentzat.

*Vortex* (Frantzia) / Gaspar Noé (Argentina)

**Aipamen berezia**
*Eles transportan a morte / They Carry Death* (Espainia - Kolonbia) / Helena Girón (Espainia), Samuel M. Delgado (Espainia)




Gaspar Noek Zabaltegi-Tabakalera Saria eskuratu zuen *Vortex* filmari esker.

## Nest Saria

10.000 euro hautatutako proiektuaren zuzendariarentzat.

*U šumi / In the Woods* (Kroazia) / Sara Grgurić (Kroazia) Academy of Dramatic Arts, Zagreb (Kroazia)

**Aipamen berezia**
*Podul de piatrâ / Pont de pedra*
(Espainia) / Artur-Pol Camprubí (Espainia)
Elías Querejeta Zine Eskola - EQZE (Espainia)

## Donostia Hiria Publikoaren Saria

Saria saileko film bakoitzaren lehendabiziko emanaldi publikoan diren ikusleek ematen dute. Donostia Hiria Publikoaren Sariak bi sari biltzen ditu: Film Onenaren saria, 50.000 euroz hornitutakoa, eta Europako Film Onenaren saria, 20.000 euroz hornitutakoa.

*Petite maman* (Frantzia) / Céline Sciamma (Frantzia)

## Donostia Hiria Publikoaren Saria Europako Film Onenaren Saria

*Ouistreham / Between Two World*
(Frantzia) / Emmanuel Carrère (Frantzia)

## Euskal Zinemaren Irizar Saria

20.000 euro filmaren ekoizleentzat.

*Maixabel* (Espainia) / Icíar Bollaín (Espainia)

**Aipamen berezia**
*Kuartk Valley* (Espainia) / Maider Oleaga (Espainia)

## Gazteriaren TCM Saria

*Mass* (AEB) / Fran Kranz (AEB)

# Industria Sariak




Foto de familia de los galardonados con los premios de Industria.

## WIP Latam sariak

### WIP Latam Industria Saria

Ad Hoc Studios, Deluxe Content Services SPAIN S.L, Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Vídeo, Nephilim producciones, No Problem Sonido eta Sherlock Films enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra (Digital Cinema Package) arte, ingelesezko azpitituluekin eta Espainian banatzea.

*La hija de todas las rabias / Daughter of Rage,* Laura Baumeister (Nikaragua), Felipa Filmsek ekoiztua (Nikaragua - Mexiko - Herbehereak - Alemania - Frantzia - Norvegia)

### WIP Latam onenarentzako EGEDA Platino Industria Saria

30.000 euro ekoizle gehiengodunarentzat.

*Vicenta B.,* Carlos Lechuga (Kuba), Cacha Filmsek ekoiztua (Kuba - Kolonbia - Norvegia - Frantzia)

## WIP Europa Sariak

### WIP Europa Industria Saria

Ad Hoc Studios, BTeam Pictures, Deluxe Content Services SPAIN S.L., Dolby Iberia, Laserfilm Cine y Video, Nephilim producciones eta No Problem Sonido enpresek bere gain hartzen dute filmaren postprodukzioa DCPra (Digital Cinema Package) arte, ingelesezko azpitituluekin, hala badagokio gaztelaniazkoekin eta Espainian banatzea.

Sari hau irabazten duen filmak gainera, **WIP Europa Saria** ere jasotzen du (10.000 euro).

*Carbon,* Ion Borș (Moldaviako Errepublika), Youbescek ekoiztua (Moldaviako Errepublika - Errumania)

# Industria Sariak

## Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroko Sariak

### Europa-Latinoamerika X. Koprodukzio Foroko Proiektu Onenari Saria

Zinemaldiak ematen duen sari hau 10.000 eurokoa da eta ekoizle gehiengodunari ematen zaio.

*Camionero,* Francisco Marise (Argentina), Lolita Filmsek ekoiztua (Espainia - Argentina)

### DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena)

DALE! Saria (Europa-Latinoamerika Garapena), Zinema Agentzien Zuzendarien Europako Elkarteak (EFAD) eta Iberoamerikako Ikusentzunezko Zinematografiako Agintarien Konferentziak (CAACI) ematen dute 20.000 euroko saria da, proiektu irabazlearen produktore gehiengodunarentzat.

*Donde Comienza el Río / Where the River Begins,* Juan Andrés Arango (Kolonbia), Inercia Películasek ekoiztua (Kolonbia - Kanada - Frantzia)

### ArteKino International Prize

6.000 euroko saria proiektu irabazlearen ekoizle gehiengodunarentzat.

*Alemania,* Maria Zanetti (Argentina), Tarea Finak ekoiztua (Argentina - Alemania)

## Ikusmira Berriak Saria

### Irusoin Postprodukzioa Saria

Sari honen bitartez, soinu-postprodukzioa (diseinua, nahasketa eta muntaketa), kolore-postprodukzioa, grafismo-lanak eta DCP master bat eskaintzen dira.

*La gruta del viento / The Wind's Cave,* Eduardo Crespo (Argentina), Pensar con las manosek ekoiztua (Argentina)

## Zinemaldia & Technology Saria

### Zinemaldia Startup Challenge saria

10.000 euro gordineko saria.

*Kinetix* (Frantzia) / Yassine Tahi - Henri Mirande

Gainera, hautatutako bost proiektuek dohainik BIC (Business Innovation Centre) bateko inkubaziogunean euren proiektuaren garapena bizkortzeko aukera daukate Euskadiko Parke Teknologikoen Sarean dauden BIC-en batean.

## XVII Lau Haizetara Dokumentalen Koprodukzio Foroaren Sariak

### Treeline Banaketa eta Jaialdietako Aholkularitzaren Saria

*Las cartas perdidas,* Amparo Climent (Espainia), Filmakers Monkeys-ek / Mitad y Mitad-ek ekoiztua (Espainia)

### Ibaia Saria

*Domingo Domingo,* Laura García Andreu (Espainia), SuicaFilmsek ekoiztua (Espainia)

# Beste sari batzuk

## RTVE-Beste Begirada Saria

*Noche de fuego / Prayers for the Stolen* (Mexiko - Alemania - Brasil - Qatar) / Tatiana Huezo (El Salvador)

## Espainiako Lankidetza Saria

10.000 euroko saria. Sail Ofizial eta Horizontes Latinos sailetarako hautatutako filmen artean aukeratzen da, giza garapenari, pobreziaren erradikazioari eta giza eskubideen egikaritze osoari ekarpen onena egiten dien film iberoamerikarraren egilearentzat.

*Noche de fuego / Prayers for the Stolen* (Mexiko - Alemania - Brasil - Qatar) / Tatiana Huezo (El Salvador)




Tatiana Huezoren *Noche de fuego / Prayers for the Stolen* filmak hiru golardo eskuratu zituen: Horizontes Saria, RTVE-Beste Begirada Saria eta Espainiako Lankidetza Saria.

## Dunia Ayaso Saria

*Destello Bravío* (Espainia) / Ainhoa Rodríguez (Espainia)

# Sari paraleloak

## FIPRESCI Saria

*Quién lo impide / Who's Stopping Us* (Espainia) / Jonás Trueba (Espainia)

## Feroz Zinemaldia 2021 Saria

*Quién lo impide / Who's Stopping Us* (Espainia) / Jonás Trueba (Espainia)

## Euskal Gidoigileen Elkartea Saria

Maider Oleaga (Espainia), *Kuartk Valley* (Espainia)

## Lurra - Greenpeace Saria

*La croisade / The Crusade* (Frantzia) / Louis Garrel (Frantzia)

## Signis Saria

*Maixabel* (Espainia) / Icíar Bollaín (Espainia)

**Aipamen berezia**

*Quién lo impide / Who's Stopping Us* (Espainia) / Jonás Trueba (Espainia)

## Sebastiane 2021 Saria

*The Power of the Dog* (Zeelanda Berria - Australia) / Jane Campion (Zeelanda Berria)

## Ohorezko sariak

# Marion Cotillard

Aktorea, Donostia Saria



“Nire ospea erabiltzeko beharra sentitzen dut fokua *Bigger than us* dokumentaleko aktibistengan jartzeko, baina nire lanbidean dudan erantzukizuna proiektu edo pertsonaia bakoitzaren mailan egotea da”.

## Ohorezko sariak

# Johnny Depp

Aktorea, Donostia Saria



“Zinez ohore bat da sari hau jasotzea benetako zinema-jaialdi batean, pelikulekin zerikusia duena”.

## Ohorezko sariak

# Kimuak

Euskadiko film labur sustapen-programa, Zinemira Saria




Txema Muñoz eta Esther Cabero: “Eskerrak bihotz-bihotzez zuzendari, ekoizle, aktore teknikari, gidoilari, argazkilari, musikari eta profesional guztiei. Gure lanak zentzua badu, zuek hor zaudetelako da-eta. Zuena guztiona da Zinemira Saria”.

SSIFF Donostia Zinemaldia Festival de San Sebastián International Film Festival

www.sansebastianfestival.com

# Pentsamendua eta Eztabaida

LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO

kutxa FUNDAZIOA

# Pentsamendua eta Eztabaida

*Nazioarteko jaialdiek eta kultura zinematografiko garaikideak dituzten erronkei erantzuteko helburua duen Zinemaldiaren zeharkako saila, urtean zehar zabaltzen diren proposamenen bidez.*

Donostia Zinemaldiak nabarmendu egin nahi du jakintza sortzeko eta transmititzeko elkargunea dela, eta Pentsamendua eta Eztabaida izeneko arloa sustatzen du horretarako. Zinemaldiko sail batzuekin eta besteekin hitz eginez, zeharkako arlo honek gai, formatu eta pertsona garrantzitsuak identifikatzen ditu eztabaidak gidatzeko, eta, hala, erantzun berritzaileak topatzen dituzte zinemagintzaren kulturak aurrez aurre dituen erronka eta ezinegon nagusien inguruan, bai eta nazioarteko zinema-jaialdien zirkuituarekin lotuta ere.

Horretarako, Zinemaldiak lau ildo estrategiko nagusi zehaztu ditu, haiekin zer-nolako harremana ote duen aztertzeko: sorkuntza (prestakuntza-programak, proiektuak garatzea eta talentu berriei laguntzea), industria (ekoizpen- eta banaketa-egiturak, teknologia berriak eta sektoreko lan-jasangarritasunaren ereduak), lurraldea (hiri-ingurunearekin eta arkitekturarekin duen harremana, aurrez aurreko zinema-emanaldien ereduak eta zinema-jaialdien inpaktu ekonomikoa) eta erkidegoa (genero-nortasunak eta ingurumen-jasangarritasuna).

Bi modutan mamitzen dira ildo estrategiko horiek. Alde batetik, etengabeko gogoeta eta azterketarako gune gisa, Pentsamendua eta Eztabaida arloak urte osoan dihardu programa eta ekimen propioen bidez, hala nola 2018ko ediziotik aurrera urtero egiten duen genero-identifikazioari buruzko txostena, 2021ean hasitako ingurumen-ikuskaritza, Donostia Zinemaldiak jaialdi jasangarriago izateko bideari hel diezaion edo ikerketa-lanak abiarazteko modua izan dezan ildo horietako bakoitzerako. Halaber, arloak orpoz orpo lan egiten du Elías Querejeta Zine Eskolak bultzaturiko jarduera akademikoekin eta ikerketa-jarduerekin. Horren adibide dira, hain justu, Zinemaldia 70: historia posible guztiak eta Zinemaren Arkitektura ikerketa-proiektuak.

Bestalde, hainbat jarduera biltzen dira Pentsamendua eta Eztabaida elkargunearen babesean. Horiek guztiek zinemaren gaineko eztabaida sustatzen dute irailean, Zinemaldia martxan den astean, betiere industriaren, sorkuntzaren eta trebakuntzaren ikuspegia kontuan hartuta. Orobat, hitzarmen- eta negozio-aukerak sortzen dituzten programak ere izaten dira, sorkuntzaren, ekoizpenaren eta banaketaren alorretan. Hor barnean biltzen dira, konparazio batera, master classak –akreditatuentzat zein publikoarentzat irekiak– eta zinema-industriako profesionalei eta komunikabide espezializatuei bereziki zuzendutako jarduerak –elkarrizketak eta mahai-inguruak edo Zinemaldia & Technology programa, besteak beste–.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak



### Bilera Céline Sciamma zinemagilearekin

**Astelehena (irailak 20), Tabakalerako zinea**

Nest-en aukeratutako ikasleak Céline Sciamma frantses zinemagilearekin elkarrizketan aritu ziren. Sciammaren filma, *Petite maman*, Perlak sailean proiektatu zen.

Nest | 20 | Urte Años Years



### Sharbanoo Sadat afganiar zuzendariaren eskola magistrala

**Asteartea (irailak 21), Tabakalerako Z aretoa**

“Afganistaneko zinemagintzaren esperantza Europara ebakuatutako zinemagileengan datza. Beren baitara begiratu behar dute, herrialdeari buruz beste modu batera hitz egiteko. Horrek adore handia eskatzen du”.

“Badirudi beti politikari buruz hitz egin behar dugula. Ni, adibidez, komedia erromantiko batean ari naiz lanean. Zergatik ezin ditugu egin afganiar komediak?”.




### James Mockoski zinema-artxibozain eta American Zoetrope konpainiako zaharberritze-arduradunaren eskola magistrala

**Asteartea (irailak 21), Tabakalerako Z aretoa**

American Zoetrope konpainiako filmen artxibozain eta zaharberritze-arduradunak, James Mockoskik, Francis Ford Coppolaren filmen bidez azaldu zuen bere lana: adibidez, *Apocalypse Now* eta Klasikoak sailean proiektatutako *The Rain People* eta *The Outsiders: The Complete Novel*.

“Batzuetan, zaharberritzetan ezin garbiago ikusten da irudia, digitala ere ematen du, baina gure errezeta pikortak mantentzea da, eta filma bere garaian ikusten zen bezala ikus dadila”.

“Francis Ford Coppolak esan ohi duenez, *The Rain People* (1969) filmarekin irabazi zuen Urrezko Maskorrari esker hartu zuten kontuan *The Godfather* zuzentzeko; hortaz, Zinemaldiarekin zorretan dagoela sentitzen du”.

“Disko gogor bat edozein unetan honda eta hil daiteke, baina ganbera batean tenperatura egokian gordetako filmaren zintak beti jarraituko du hor. Gauza digitalak hauskorragoak dira”.

“Francisi kezka eragiten dio narratibak denborarekin izango duen bilakaerak, eta horregatik egiten ditu bere filmen bertsio bat baino gehiago: bere garaian buruan zeukanera hurbiltzeko. Jolasaren parte da”.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak



### Ikasle ohien topaketa 20

**Asteartea (irailak 21), Tabakalerako zinea**

Irailaren 21ean Nest saileko ikasle ohien topaketa antolatu zen Tabakalerako zinema-aretoan eta zuzenean podcast bat grabatu zen. Ikasle horiek duela urte batzuk Nesten parte hartu zuten eta egun, euren zinema-ibilbidea garatzen ari dira: Kiro Russo (*Nueva vida*, Nest 2015), Inês de Lima (*De madrugada*, Nest 2017), Mina Fitzpatrick (*Wandervogel*, Nest 2017) eta Óscar Vincentelli (*Guillermo + Violeta*, Nest 2018). Nestetik igaro ondoren, lau zinemagile horiek lotura izaten jarraitu dute Tabakaleran partekatutako proiektuekin: Inês de Lima EQZEren bigarren promozioko kide izan zen, bere hirugarren lana, *Casa do Norte*, garatzen ari zen bitartean; Óscar Vincentelli EQZEren lehen promoziokoak instalazio bat aurkeztu zuen Tabakaleran, bere lanak eta proiektuak hitzordu ugaritan –hala nola Locarno eta Berlinale Talentsen– hautatu izan dituzte, eta *La sangre es blanca* (2021) bere azken lanak FIDMarseille jaialdiko Compétition Flash lehiaketaren sari nagusia eraman zuen; Mina Fitzpatrick martxoan itzuli zen Ikusmira Berriak programara eta hilabete honetan Zinemaldiko Industria jardueretan parte hartuko du bere lehen film luzearekin; eta Kiro Russo Ikusmira Berriak programara itzuli zen egoiliar gisa, bai eta zinemagile hautatu gisa ere Horizontes Latinos sailera (*Viejo Calavera*, aipamen berezia). Aurten Zabaltegi-Tabakaleran aurkeztuko du *El gran movimiento*, Venezian egon ondoren. Itzulera horiek guztiak Z365 kontzeptuarekin lotuta daude. Z365 kontzeptua Zinemaldia urte osoan zehar luzatzeko ideian funtsatzen da, eta Zinemalditik igarotako zinemagileen komunitateak sortutako proiektuen garapena sustatzeko programak biltzen ditu.

**Kiro Russo** (*Nueva vida*, Nest 2015): “Tabakalera zinema egiteko bigarren etxe bat da”.

**Inês de Lima** (*De madrugada*, Nest 2017): “Nest plataforma handia izan da, gauza askotarako: lagun handiak, kontaktuak… Familia moduko bat da”.

**Mina Fitzpatrick** (Wandervogel, Nest 2017): “Nest-en parte hartzen baduzu, Ikusmira Berriak programan sar zaitezke. Hemen egoteak zure proiektuaren irismena ongi ulertzeko aukera ematen du”.

**Óscar Vincentelli** (*Guillermo* + *Violeta*, Nest 2018): “Zinema-areto hau kanpaleku nagusi bat da, inoiz gelditzen ez den zinema-jaialdi moduko bat”.

Nest | 20 | Urte Años Years

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak



### Laura Wandel zuzendariaren eskola magistrala (Nest sailetik Un Certain Regard sailera)

**Asteazkena (irailak 22), Tabakalerako zinea**

Laura Wandel belgikar zinemagilea Zinemaldiko zinema-ikasleen topaketara itzuli zen; 2007an *Murs* film laburrarekin hautatua izan zen. Wandelek, Nest-en aukeratutako ikasleekin hitz egin, eta Zabaltegi-Tabakalera sailean aurkeztu zuen bere lehen film luzea, *Un monde / Playground*. Aurrez, Canneseko zinema-jaialdian estreinatu eta Fipresci saria irabazi zuen lan horrekin.

“Donostiakoa zinema-eskolatik atera ondorengo lehen zinema-jaialdietako bat izan nuen, eta oso harro nengoen. Oroitzapen zoragarriak ditut Nest-en: besteak beste, Alfonso Cuarónen *masterclass* oso interesgarri bat. Eta are gehiago hunkitzen nau nire lehen film luzearekin Zinemaldira itzultzeak”.

Nest | 20 | Urte Años Years



### Paolo Sorrentinoren eskola magistrala

**Asteazkena (irailak 22), Tabakalerako zinea**

Paolo Sorrentino zinemagile eta zuzendari italiarrak È stata la mano di dio aurkeztu zuen, Veneziako Mostran lehiatu zen filma. La grande bellezza / The Great Beauty filma zuzendu zuen egileak bere azken lanari buruz hitz egin zuen publikoarekin, baita zinemarekin duen loturari buruz ere.

“Zinemak eta futbolak gaitasun bera dute: amaiera ezezaguna duen istorio baten aurrean jartzen gaituzte ordu eta erdiz. Horrela, ilusiozko mundu batera eramaten gaituzte, eta, horregatik, nik uste ez zinema ez futbola ez direla inoiz hilko, zeren beste mundu bat posible dela pentsatzeko beharra baitaukagu gizakiok”.

“35 urte daramat neure buruarekin barru-barruko elkarrizketa batean, nire minari buruz hitz egiten. Film hau eginez agian urei bide eman eta gauza aldatuko zela iruditu zitzaidan”.

**È stata la mano di Dio / The Hand Of God** (Italia) / Paolo Sorrentino (Italia)

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak



### Serieen jardunaldia: Identitateak eta aniztasuna. Egiturak aldatzen dituzten istorioak.

**Europa Creativa MEDIA Desk Euskadirekin batera antolatuta. Larunbata (irailak 18), Kursaal (Prentsa-kluba).**

Valeria Vegas kazetari, idazle eta La Venenoren biogafiaren egileak moderatuta.

Identitate desberdinen isla gero eta gehiago ari da agertzen fikziozko telesailetan. Saio honetan, gizarte-aldaketa eragiten duten istorioei buruz hausnartuko da, duela gutxira arte bigarren mailan mantentzen ziren edo islatzen ez ziren identitateak plataforma eta telebistetara eramaten dituzten istorio garrantzitsuei buruz. Nola bideratzen da telesail baten sorkuntza eta ekoizpena askotariko identitateekin eta estereotipoak saihestuta diharduten gaiak jorratzeko orduan? Nola ari da aldatzen identitate berriak ekoizpen-mekanismoetan (castinga, etab.) eta lan-metodologietan txertatzeko eginkizuna?

**Valeria Vegas**, kazetaria eta idazlea, moderatzailea

“Beharrezkoa al da kolektibo bateko partaide izatea hari buruz egiazki idatzi ahal izateko?”

**Bob Pop**, sortzaile eta gidoilaria (*Maricón perdido*)

“Garrantzitsua da hitz egitea, ez gure istorioari buruz soilik, baizik eta gure ahotsarekin. Gure ardura da istorioak gure erara kontatzea eta guztiona izango den narratiba bat eratzea; izan ere, fikzioak gizarte-ereduak sortzeko balio du”.

**Diego del Pozo**, Atresmedia komunikazio-taldeko fikzio-edukien arduraduna

“Istorio mota berriak ezagutzeko jakin-mina dago”.

**Claudia Costafreda**, gidoilaria (*Veneno*)

“Pertsonaiak eta haien istorioak ulertu behar dituzu; estereotipoan erortzen bazara, lan horretan ahalegin eta arreta gutxi jarri duzun seinale”.

**Adrián Silvestre**, zinema-zuzendaria (*Sedimentos*, Made in Spain)

“Ikusten ez dena ez da existitzen”.

**Eva Leira eta Yolanda Serrano**, casting-zuzendariak

“Fikzioa gizartearen atzetik doa beti; apur bat motela da eta denbora eman behar zaio”.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak




### Latinoamerikako LGTBIQ+ Zinemaren erronkak

**Asteartea (irailak 21), San Telmo Museoa.**

**Rolando Salazar** Zinema Gay, Lesbiko eta Transaren Limako jaialdiaren (Peru) zuzendariak moderatuta

LGTBIQ+ zinema jada finkatutako gaia da Latinoamerikako zinematografian, baina, industriaren ikuspegitik, zeintzuk dira egungo erronkak Latinoamerikako herrialde guztietan ekoizpen, casting, sustapen eta hedapenerako prozesuak gauzatzerakoan?

Begirada bat orainari, Latinoamerikako LGTBIQ+ zinemaren etorkizuneko erronkei heltze aldera, ingurunea oso aldakorra dela kontuan izanik, bilakaera soziopolitiko eta ekonomikoa etengabea izanik eta herrialdeen artean aniztasun handia egonik.

**Patra Spanou**, Patra Spanou Film (Alemania)

“Egile-filmekin lan egiten dugu, eta gure lehen ardura filma eta sektore hori dira. Gainera, LGBT gaia dago, banatzaile espezializatuak erakartzeko”.

**Hebe Tabachnik**, hainbat zinema-jaialditako programatzailea eta ekoizlea

“Zazpi urte behar izan genituen *Valentina* egiteko, baina egun ezingo litzateke egin, zeren funtsek halako filmak zentsuratu egiten baitituzte. Ikusten dugu aurrera egin dela, baina atzera ere egin dugu, batez ere, Brasilen, gizartea kontserbadorea delako. Horrek finantzaketa zailtzen du”.

**Gabriela Sandoval**, ekoizle eta banatzailea

“Zinema-jaialdietan ikus-entzuleentzako espazioak sortzen ditugu. Duela hamar urte, egoera bestelakoa zen. Gaur egun, zinemagileak gehiago konturatzen dira ikus-entzuleekin eta haien aniztasunarekin erlazionatu behar direla”.

**Clarisa Navas**, zinemagilea

“Latinoamerikan edozein gairi buruzko zinema egitea oso zaila da, eta gaiak LGTBIQ+ komunitatearekin zerikusia badu, are zailagoa”.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak

### EUROPA DISTRIBUTION / Egokitu eta aurrera egin. Nola COVID garaietan ideien garapenak filmak argitaratzeko eta banatzeko aro berri baterantz eraman gaitzakeen

**Astehelena (irailak 20), San Telmo museoa**

Astelehena, hilak 20, 10:30-12:00. Ekitaldi-aretoa, San Telmo museoa.

Moderatzailea: **Michael Gubbins**

Hizlariak: Christina Pelekani, Esther Kollmann, Alzbeta Dlouhá eta Emelie Samuelsson.

Pandemiak iraun ahal duten eta iraun behar duten berrikuntza-aukera berriak ireki ditu. Europako editore eta banatzaile independenteek inoiz baino malgutasun handiagoa agertu dute, estreinatzeko ereduak eta estrategiak aldatuz eta, COVIDa gorabehera, istorio berriak pantailaratzeko aukera eman dieten lankidetza berriak garatuz.

Gonbidatutako Europako lau banaketa-enpresen esperientzia gida baliotsua izan zen krisian jendea erakartzen eta jendearengana iristen jarraitu ahal izateko agertu diren banaketa-estrategia berrien adibideak aztertzeko.

**Christina Pelekani**k (Feelgood Entertainment), esaterako, Michalis Konstantatosen *All the Pretty Little Horses* filmaren adibidea jarri zuen; izan ere, VOD banaketari esker, indar handia lortu du ondoren zinema-aretoetako estreinaldiak.

**Esther Kollmann**ek (Cinéart) azaldu zuen nola, krisialdian, enpresaren indar ekonomikoa erabili zuen Amazoneko kanal baten bitartez katalogo birtual zabal baten aldeko apustua egiteko.

**Alzbeta Dlouhá**k (Aerofilms), zeinak onlineko plataforma bat bazuen lehendik, azaldu zuen 2020an ikustaldi kopurua boskoiztu zuela. *Caught in the Net* Txekiako filma VOD bitartez estreinatu zen zuzenean, eta urteko film ikusiena izan zen. Horrez gain, *Bad Luck Banging or Loony Porn* filmaren kasua aurkeztu zuen: birtualki estreinatzeak ez zion kalterik egin zinema-aretoetako estreinaldiari; aitzitik, filmaren inguruan ikusmin handiagoa sortzen lagundu zuen.

**Emelie Samuelsson**ek (TriArt) azpimarratu zuen zein garrantzitsua den zinema-aretoak mantentzea, eta *Greta* filmaren adibidea ekarri zuen hizpidera. Zinema-aretoetako edukiera murriztu arren, estreinatu zen, eta urteko film arrakastatsuena izan da.



# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak




### Ikus-entzunezkoa eta irakaskuntza. Irakaskuntza ikus-entzunezkoan.

**Asteartea (irailak 21), Kursaal (Prentsa-kluba).**

**Moderatzailea:** Fernando Rodriguez Lafuente, literatura- eta zinema-kritikaria eta cultura-kudeatzailea.

Análisis sobre el uso del audiovisual como herramienta didáctica en la educación y en la formación, así como sobre la necesidad de lograr una alfabetización audiovisual de base en nuestra sociedad.

**Hizlariak:**

**Luis Domingo González Nuñez**, Gaztela eta Leongo Juntako Hezkuntzako Kontseilaritza

**Cristina González Gil**, CINESA

**Mercedes Agüero Pérez**, THE CORE Entertainment Science School

**Octavio Dapena Crespo**, EGEDA

EGEDAk antolatua (Ikus-Entzunezkoen Ekoizleen Eskubideak Kudeatzeko Erakundea).

Kursaal Biltzar Jauregi eta Auditoriumeko Prentsa Klub aretoan mahai-inguru bat egin zen zinemaren eta hezkuntzaren arteko sinergia-esperientzia nabarmenak partekatzeko.

Fernando R. Lafuente izan zen moderatzailea; hots, Ortega y Gasset Ikerketa Institutuko (IUIOG) Kultura Garaikideko Masterraren zuzendaria, Revista de Occidente-ko erredakzio-idazkaria eta Platino Educa plataformako aholkulari akademikoa. Halaber, parte-hartzaile hauek bildu zituen mahai-inguruak: Cristina González Gil (Cinesa-ko Hego Europako salmentaburua),

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak

Mercedes Agüero (The Core Entertainment Science School-eko dekanoa), Luis Domingo González (Gaztela eta Leongo Juntako Hezkuntza Kontseilaritzako Irakasleen Prestakuntza eta Berrikuntzako zuzendari nagusia) eta Octavio Dapena (EGEDAko zuzendari kudeatzailea eta Platino Educa plataformako zuzendaria).

Hitzaldian, argi eta garbi ados agertu ziren parte-hartzaile guztiak: zinemak sortzen dituen kontakizun, emozio eta sentsazioak zabalak eta askotarikoak dira, eta, hortaz, oso aukera pedagogiko eta didaktiko indartsuak eskaintzen dituzte, eta hezitzaileek ez lukete zalantzarik egin behar eskoletan horiek txertatzeko, irakaskuntza-metodo tradizionalagoen osagarri.

Hala defendatu zuen Cristina Gonzálezek, azaldu zuenean zergatik, 2018an, Cinesa Schools sortzea erabaki zuen Cinesa emankizun-kateak. Ikastetxe eta institutuentzako film hezigarriak ikusteko programa berezi horrek hezkuntzarako balio handia duten filmak aukeratzen ditu, ikasleek pantaila handian ikus eta goza ditzaten. «Belaunaldi berrien artean zinemaren eta ikus-entzunezko kulturaren grina sustatzea da gure asmoa, eta irakasleei hezkuntza-curriculumeko edukiak ikasgelatik kanpo lantzeko aukera eskaintzea, zinema-aretoan, testuinguru motibatzailea baita, azaldu zuen.

Bestalde, Luis Domingok nabarmendu zuen Gaztela eta Leongo Junta, Hezkuntzako Kontseilaritzaren bitartez, administrazio aktibo eta berritzaileenetako bat dela zinema hezkuntza-programetan erabiltzeari dagokionez, eta baita arrakastatsuenetako bat ere emaitzei begiratuz gero: “Gaztela eta Leongo Irakurketa Planaren eta ikastetxeetako liburutegien bidez, irudiaren irakurketa eta ikus-entzunezko bitartekoen irakurketa indartzen da; zinema beste irakurketa mota bat dela ulertzen da”.

Octavio Dapenak azaldu zuen Platino Educa plataformak 2019. urte amaieratik eskaintzen duela Espainiako eta Iberoamerikako zinema hezkuntza-material gisa, ikastetxeentzako onlineko tresna baten bitartez. Obrak eta sekuentziak irakasgai, gai multzo eta adinen arabera sailkatuz, eta gida didaktiko bereziz lagunduta, “jakintzak areagotzen, balioetako hezkuntza lantzen eta ikus-entzunezkoen arloko alfabetatzea hobetzen laguntzen diegu irakasle eta ikasleei”.

Azkenik, Mercedes Agüerok gaineratu zuen ezen, zinema ikaskuntzarako tresna gisa erabiliko bada, ikus-entzunezkoen sortzaile eta profesionalen prestakuntza ere hobetu behar dela. Helburu hori lortzeko lanean dabil The Core Entertainment Science School, Europako ikus-entzunezko hub handienean (Madrid Content City) sortutako unibertsitate-eskola. “Edukiak sortzen dituzten diziplina guztiak gune berean biltzea balio paregabea da alor horretan prestatu nahi dutenentzat. Gu lankidetzan, esperimentazioan eta teknologian oinarritzen gara”.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Solasaldiak

### Genero-berdintasunari buruzko lan-jardunaldia

69. edizioaren azken aurreko eguneko goizean egin zen Donostia Zinemaldiak eta (H)emen ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektoreko emakumeei zuzendutako elkarteak antolaturiko lan-jardunaldia Tabakalerako K aretoan.

Zinemaldiko eta (H)emen elkarteko ordezkariek ez ezik, Ikus-entzunezkoen 50/50 Berdintasunerako Lurralde arteko 2025erako Lantaldea osatzen duten kolektiboek ere parte hartu zuten saioan: AAMMA (Ikus-entzunezkozkoetako Emakumeen Andaluziako Elkartea), AMMA (Ikus-entzunezkozkoetako Emakumeen Murtziako Elkartea), DONA I CINEMA (Valentziako Emakumeen Elkartea), DONES VISUALS (Ikus-entzunezkozkoetako eta Zinemagintzako Emakumeen Kataluniako Elkartea) eta MIA (Animazio Industriako Emakumeen Elkartea), baita CIMA ere (Ikus-entzunezko eta Zinemagintzako Emakumeen Elkartea). Tramak -Emakumeek eginiko Erakustaldi, Zinema Jaialdi, Bideo eta Multimedia Lanen Koordinakundeak- ere parte hartu zuen.

Topaketa horren xedea izan zen genero-berdintasunarekin lotutako auzien gaineko hausnarketa eta eztabaida piztea eta gai horien inguruko akordioak lortzea. Ildo horretan, Zinemaldiak konpromisoa hartu zuen emakumeek zuzenduriko filmen partaidetza zaintzeko eta areagotzeko hainbat alorretan, hala nola Europa-Latinoamerika Koprodukzio Foroa, Nest, Ikusmira Berriak egoitza-programa eta New Directors saila –azken horretan, zinemagileen lehen eta bigarren lanak biltzen dira–. Hitzartutakoaren bitartez, emakume profesionalen presentzia bermatu nahi da zinema-industriaren lehen urratsetan. Era berean, adostu zuten genero-identifikazioko txostena areagotzea eta kategoria berriak biltzea 2022an, eta, horretaz gainera, konpromiso berriak eta haien betetze-maila ere kontuan hartuko dira datozen edizioetan. Zinemaldiaren zuzendaritzak konpromisoa hartu zuen, era berean, kode etiko bat eztabaidatzeko datozen hiletan, ohore-sariekin loturik.

Adostu zen, orobat, elkarrizketa jarraitua eta loteslea izatea elkarteekin, Pentsamendu eta Eztabaida alorraren barruan gai jakin batzuk jorratzeko, hala nola berdintasuna eta aniztasuna biltzea eta apurka-apurka eta elkarrekin aurrera egitea ahal den neurrian. Zinemaldia eta elkarteak hiru hiletik behin elkartuko dira urte osoan zehar.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## European Film Forum




### Europako ikus-entzunezkoen ekosistemaren eraldaketa: Industria iraunkorrago eta digitalago baterantz. Creative Europe MEDIArekin batera antolatuta

**Astelehena (irailak 20), San Telmo Museoa.**

Europako ikus-entzunezkoen industria berritu eta eraldatzeko eta haren erresilientzia indartzeko, Europako Batzordeak Creative Europe 2021-2027 plan berria garatu du, eta plan horren lehen programa jada aplikatzen ari da, komunikabideen eta ikusentzunezkoen sektorearen ekintza-planarekin batera. Testuinguru horretan, bi erronka nagusiri egiten die aurre: batetik, industria ekologiko bihurtzea Europako “Green Deal” delakoaren baitan; eta bestetik, digitalizazioa, aukera eta negozio-eredu berriak sortzea ahalbidetuko duten teknologia digitalak txertatzen lagunduta.

Europan garrantzitsuak diren erakunde, elkarte, plataforma eta esparru pribatuko profesional independenteen ordezkarien begiradaren eta esperientziaren bidez, European Film Forumek ikus-entzunezkoen Europako industriaren eraldaketan oinarritutako programa bat antolatu zuen.

**Lucía Recalde**, Europako Batzordeak ikus-entzunezkoen eta komunikabideen industriarentzat dituen laguntza-programen unitateko arduraduna: *“Ez gara itzuliko COVID aurreko normaltasunera; hain zuzen, pandemiak ikus-entzunezkoen ekosisteman lehen ere baziren joerak bizkortu ditu. Normaltasun berrian sartzen ari gara, baina normaltasun berri honetan funtsezko elementu nagusia ikus-entzunezkoen sistemaren eraldaketa zeharo bizkor eta sakona da. Agenda berdea eta digitalizazioa dira eraldaketa horren bi eragileak”.*

# Pentsamendua eta Eztabaida

## European Film Forum

**EGITARAUA**

**1. PANELA / GREEN DEAL:
ERRONKAK EDO AUKERAK EUROPAKO IKUS-ENTZUNEZKOEN INDUSTRIARENTZAT?**

Teknologien eta plataforma digitalen erabilerak erro sakonak ditu gure eguneroko bizitzan. Hori horrela, inoiz baino beharrezkoagoa da jasangarritasunari buruzko eztabaidan horiek gogoan izatea eta pentsatzen hastea nola hel diezaiokegun banaketari, jasangarritasun-irizpideak eta planetaren gaineko inpaktu onuragarria kontuan harturik.

Moderatzailea: **Elena Neira**, Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) Komunikazio Ikasketetako irakaslea eta *La otra pantalla*-ren egilea.

**Álvaro Longoria**, Europako Ekoizleen Klubeko presidenteordea eta Morena Films (Espainia) konpainiako ekoizle eta bazkidea

“Lortu behar dugu hau nahitaezkoa izan dadila: ekoizpen guztiek zigilu berde bat izan dezatela eta lehenbailehen ezar dadila”.

“Morena Films-en egin ditugun azken bost filmak produkzio ekologikoak izan dira, baina, nola orekatu karbono-aztarna? Esan digute 30 urtean 6.000 zuhaitz landatu behar ditugula gure karbono-aztarna orekatzeko, baina, nola egingo dugu hori?”

**Luz Molina**, Europako Green Screen proiektuaren arduraduna (Interreg Europe)

“Oraintxe bertan, herrialdetik herrialdera aldatu egiten dira karbono-aztarna kalkulatzeko tresnak. Metodologia eta tresna komunak behar dira sistema uniformea eduki eta proiektuak konparatu ahal izateko”.

**Paloma Andrés Urrutia**, Fiction Changing the World eta Mrs. Greenfilm erakundeen sortzaileetako bat

“Trantsizio berdea egiteko garaian, garraioa eta energia-kontsumoa dira industriaren Troiako zaldiak”.

**Zsofia Szemeredy**, jasangarritasuneko aholkularia eta garapeneko exekutiboa. Green Eyes Production-en sortzaileetako bat (Hungaria).

“Pandemiak ezer erakutsi badigu, zera da: azkar ezar ditzakegula protokolo berriak”.

**2. PANELA / DIGITALIZAZIOA ETA BIG DATA: ZER BIDE HARTU BEHAR DU EUROPAK?**

Ikus-entzunezkoen kontsumoa aldatu egin da, euskarriak eta kanalak ugaritu, eta VOD (*Video On Demand*) plataformak orokortu dira, eta horrek inoiz baino datu gehiago ematen dizkigu ikus-entzuleen interes, ohitura eta gustuei buruz. Europako ikus-entzunezkoen sektoreari aplikatutako tresna teknologikoen garapena dela medio, aukera berriak sortzen ari dira. Zer modutan ari dira tresna horiek sorkuntza-, ekoizpen- eta, nagusiki, banaketa-estrategiak optimizatzen?

Moderatzailea: **Elena Neira**, Kataluniako Unibertsitate Irekiko (UOC) Komunikazio Ikasketetako irakaslea eta *La otra pantalla*-ren egilea.

**Niels Alberg**, Publikum sozietatearen (Danimarka) sortzaileetako bat eta CEOa

“Zirraragarria da ekoizleek ikuspegi zuzenagoa aplikatu ahal izatea kontsumitzaileei dagokienez; lehen, zinema-aretoek soilik zituzten ikusleei buruzko datuak”.

**Oliver Fegan**, Usheru konpainiaren (Irlanda) sortzaileetako bat eta CEOa

“Big Data informazio-iturri itzela da”.

**Emilio Sánchez Zaballos**, Atresmedia taldearen (Espainia) bideo eta onlineko plataformen kudeatzailea

“Azkenean, big data ezin da konparatu sektorean urte luzeko eskarmentua duten adituekin”.

# Pentsamendua eta Eztabaida

## Zinemaldia & Technology

**Osteguna (irailak 23), Tabakalerako  Z aretoa.**

Pandemiaren ondorioz, filmazio-ingurune seguruak sustatu behar dira, baita ekoizpen-talde handiak nazioarteko kokaguneetan mugitzea saihestu ere. Hori dela-eta, ekoizpen birtuala, lau edo bost urteko epean aurreikusten zena, bizkortu egin da. Ekoizpen birtuala filmazio-sistema bat da, errealitate mistoko ingurune batean egiten dena eta aukera ematen duena pertsonaiak filmatzeko ordenagailu bidez sortutako edo aldez aurretik filmatutako hondoekin elkarreraginean, kokaleku horietara bidaiatu beharrik gabe, baita filmazio-plan baterako hain garrantzitsuak diren alderdiak (hala nola eguraldia eta argia) kontrolatzeko aukera ere. Ikusefektuen esparruko bilakaera teknologikoari esker, efektu digitalen hedapenetik askotariko simulazioetara igaro gara, hala nola izaki digitalak edo gizaki birtualak sortzera. Profesional askorentzat, efektu horiek garatzeko oztoporik handiena mundu birtualaren eta errealaren arteko elkarrekintzan zegoen, eta, hain zuzen ere, teknologia berri horrek zubi bat eraiki du bi mundu horien artean. ALIA Ikus-entzunezkoen Industriaren aliantzak mahai-inguru batean bildu zituen, AC Coppensek moderatuta, ikusentzunezkoen industria teknikoetako profesionalak, eta askorentzat ikusentzunezko ekoizpenaren etorkizuna den teknologia berri horri buruz eztabaidatuko dute bertan.

**Bernat Aragonés**, efektu berezien editore eta gainbegiralea Antaviana Films enpresan

“Ekoizpen birtuala Harri Aroan dago oraindik”.

**Pere Pérez**, Mediapro taldeko berrikuntza-arduraduna

“Prestakuntza eta hezkuntza da erronka handiena. Orain, trebezia-eskasia handia dago. Denbora errealeko edukien ekoizpenaren eskaria dago, eta horretan aritzeko gaitasunak dituen jendea behar da”.

**Pedro Fernández**, WeLab enpresako zuzendaria

“Hemen, bateratzea da kontua, guztia produkzio-lerro bakarrean bideratzeko. Oraintxe, bi motako lantaldeak eta teknikariak daude. Ohiko produkziorako argi-teknikari bat (*gaffer*) dago, eta birtualerako beste bat; eta birtualerako arte-zuzendari bat eta beste bat tradizionalerakol”.



# Pentsamendua eta Eztabaida

## Zinemaldia 70: historia posible guztiak

*Z70: EQZEren ikerketa-arloarekin batera sortutako ikerketa-proiektua, Zinemaldiaren artxibo historikoa kontserbatzen, zaharberritzen, digitalizatzen, katalogatzen eta aztertzen lan egiten duena, hitzaldiak, proiekzioak, erakusketak edo ikastaroak bezalako programa publikoak sortuz.*

Zenbat historia biltzen ditu nazioarteko zinema-jaialdi batek zazpi hamarkadako ibilaldian? Nola berreskuratu Donostia Zinemaldiaren memoria eta 1953an sortu zenetik izandako alderdi zinematografiko, politiko, sozial eta pertsonal guztien arrasto materialak?

2018an, Donostia Zinemaldiak eta Elías Querejeta Zine Eskolaren (EQZE) Ikerketa Sailak *Zinemaldia 70: historia posible guztiak* izeneko egitasmoa sortu zuten, zeinaren helburua baita Zinemaldiaren artxibo historikoa kontserbatzea, aztertzea eta jendaurrean ipintzea. Artxibo horrek funts kopuru mamitsua kontserbatzen du Zinemaldia 1953an sortu zenetik, hala nola korrespondentzia, kartelak, prentsa-artxiboa, aldizkariak eta liburuak. Proiektuaren lehen fasea 2022an amaituko da, Zinemaldiaren 70. urteurrenean, hain zuzen. Ekimenaren lankide dira Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Euskadiko Filmategia eta Kutxa Fundazioa, eta Estatuko Loteriak eta Apustuak etxearen babesa dauka.

Proiektuaren oinarria artxiboko funtsak Tabakalera eraikinera eramatea da, behar bezala kontserbaturik, giroturik eta instalaturik egon daitezen Euskadiko Filmategiaren nabeetan. 2022an kontsultatzeko moduan egongo dira artxiboko funts nagusiak –bai aurrez aurre, bai online–, digitalizatutako eta komisariatutako eduki aukeratuen bidez.

Proiektuaren helburu nagusia artxibo bizi bat sortzea da; hala, gogoeta eta eztabaidarako gune bat eratuko da Zinemaldiaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruz, pentsamendu, ikerketa eta sorkuntza garaikidearekin kritikoak diren elkarrizketetara irekita egongo dena. Horretarako, Elías Querejeta Zine Eskolako graduondoko ikaslez osatutako taldeek garatutako ikerketa-ardatzak zehaztu dira proiektuaren hasieratik. Pablo La Parra Pérez ikertzailea aritu da horiek zuzentzeko lanetan, Zinemaldiko zenbait sailekin lankidetzan. Ikerketa-ardatzek Zinemaldiaren historiako alderdi ez oso ezagunetan edo argitaratu gabeetan jartzen dute arreta: diktadura frankistaren garaiko zentsura zinematografikoa; eraldaketak eta demokratizazioa trantsizio-urteetan; Zinemaldiaren historia bisuala berrikustea, ikuspegi kritikoa eta feminista baliatuz edo argazki-legatuaren bidez; edo ikasleek eta zinema-eskolek lehiaketan izaniko partaidetza, joan den mendeko 70eko hamarkadan zinema-eskolen lehen topaketetan egin zirenetik gaur egungo NEST ekimenera ailegatu arte.

Emaitzak jakinarazteko, Zinemaldia 70 egitasmoak bi lan-ildo jorratzen ditu aldi berean eta bata bestearekin loturik. Alde batetik, abian diren ikerketak material espezializatuetan zehazten dira (artikulu akademikoak, biltzarretako aurkezpenak, mintegiak, etab.), zinemagintza-ikasketen esparru akademikoan izandako azken garapenekin elkarrizketa kritikoa sortzera bideratuta daudenak. Eta, bestetik, proiektuak programa publikoak ere sortzen ditu (hitzaldiak, emanaldiak, erakusketak, ikastaroak, etab.), ikus-entzule gehiagori zuzenduta eta sormenaren eta komisariotzaren alorreko beste hizkuntza batzuekiko trukean oinarrituta daudenak.

# Urte osoko zinemaldi bat

# Urte osoko zinemaldi bat

## 365 eguneko Zinemaldia Tabakaleran

Donostia Zinemaldia zinemaren munduko ospakizun komunitario bat da; Donostian modu bizian egiten da irailean, bederatzi egunez. Era berean, urteko 365 egunetan lan egiten duen erakunde bat da, zinemaren arloko prestakuntza eta ezagutzen transmisioa sustatzeko, proiektu zinematografikoak garatzen laguntzeko eta ikerketa eta dibulgazioa bultzatzeko.

### 1. Programazioa

2020ko urrian, Zinemaldia + Plus sortu zuen Zinemaldiak: zinema-jaialdiak Tabakalerako pantaila publiko partekatuan parte hartzeko urteroko fokua. Foku hori hilero gauzatzen da eta azpimarratzen du nola jartzen den harremanetan Zinemaldia zinema-sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoen industriarekin, lurraldearekin eta integratzen den komunitatearekin; hori guztia modu zabal batean egiten du bai egutegiari, bai formatuari dagokionez, emanaldien programen bidez, mahai-inguruen bidez, mintzaldien bidez, erakusketa-elkarrizketen bidez eta beste bitarteko batzuen bidez.

Horrela, Zinemaldia + Plus fokuak bere barnean hartzen dituen jardueren artean daude Zinemaldiko elkarrizketak eta haien urte osoko zinema-jaialdiko programak (Z365), eta horiek gauzatzen dira prestakuntza eta talentu berriekin (Lehen Urratsak, Elías Querejeta Zine Eskola eta Nest), proiektuen garapenarekin (Ikusmira Berriak) eta ikerketa eta dibulgazioarekin (*Zinemaldia 70: historia posible guztiak*) lotutako ekimenen bidez.




Donostia Zinemaldiak zentsura frankistarekin izan zuen erlazioari buruzko programa publikoaren une bat.

### 2020-2021eko programa

Urria (30). Lehen urratsak (1). Donostia Zinemaldiko 68. edizioko hainbat sailetan irabazitako emakumezko zinemagileek film luzeetara jauzi egin aurretik egindako film laburren emanaldien lehen saioa.

- **Léthé / Leta** (Georgia - Frantzia, 2016) / Dea Kulumbegashvili (Georgia) – Film laburra.
- **Vader / Father** (Herbehereak, 2019) / Isabel Lamberti (Alemania) – Film laburra.
- **Metáfora ou a Tristeza Virada do Avesso / Metaphor or Sadness inside out** (Portugal - Erresuma Batua, 2014) / Catarina Vasconcelos (Portugal) - Film laburra.

Azaroa (12). Lehen urratsak (2). Donostia Zinemaldiko 68. edizioko hainbat sailetan irabazitako emakumezko zinemagileek film luzeetara jauzi egin aurretik egindako film laburren emanaldien bigarren saioa.

- **Amor** (Herbehereak, 2017) / Isabel Lamberti (Alemania) – Film laburra.
- **Ukhilavi Sivrt Seebi / Invisible Spaces** (Georgia, 2014) / Dea Kulumbegashvili (Georgia) – Film laburra.
- **400 maletas / 400 Bags** (Mexiko, 2014) / Fernanda Valadez (Mexiko) – Film laburra.
- **Arukenai Bokura wa / Sticks and Stones** (Japonia, 2019) / Takuma Sato (Japonia) – Mediometraje.

Abendua (4). Zinemaldia + Plus. Donostia Zinemaldiak zentsura frankistarekin izan zuen erlazioa erakutsi zuen *Zinemaldia 70: historia posible guztiak* ikerketa-proiektuaren bigarren programa publikoak.

- **Canciones para después de una guerra** (Espainia, 1971) / Basilio Martín Patino (Espainia).

Urtarrila (30). Lehen pausoak, narratiba berriak. Honako film labur hauek eman zizuzten: **Gorria** (Maddi Barber, 2020), **Euritan** (Irati Gorostidi eta Arantza Santesteban, 2017) eta **Luisa no está en casa** (Celia Rico, 2012). Proiekzioaren ondoren, Arantza Santesteban eta Celia Rico zinemagileak haien narratiben inguruan solastu ziren.

# Urte osoko zinemaldi bat

## 365 eguneko Zinemaldia Tabakaleran

Otsaila (18): Nest + Plus. Nest sailean saritutako zinemagileen film laburren emanaldia.

- **Cualquier ventana en la que esté** (Espainia, 2020) / Magdalena Orellana (Argentina) – Film laburra
- **A Better Tomorrow** (AEB, 2018) / Haohao Yan (Txina) – Film laburra
- **The Speech** (AEB, 2020) / Haohao Yan (Txina) – Film laburra
- **A Long Night** (India, 2013) / Ashmita Guha (India) - Film laburra
- **CatDog** (India, 2020) / Ashmita Guha (India) - Film laburra

Martxoa (20): Z70 ikerketa proiektuak antolatutako *Lehen urratsak. Donostiako Zinemaldiaren ikusizko historiari buruzko beste ikuspegi batzuk* (1953-1970) erakusketari lotutako proiekzioa.

- **Sziget a szarazfoldon / The Lady from Constantinople** (Hungaria, 1969) / Judit Elek (Hungaria)

Apirila (2). 2021eko Ikusmira Berriak programako egoilarrek zuzendutako film laburren aukeraketa.

- **Ya no duermo** (Espainia, 2020) / Marina Palacio (Espainia) – Film laburra
- **Wandervogel** (AEB, 2017) / Mina Fitzpatrick (AEB) – Film laburra
- **A Smile Is Not a Paradigm** (AEB, 2018) / Magdalena Orellana (Argentina) – Film laburra
- **Con el viento** (Espainia, 2009) / Manuel Muñoz Rivas (Espainia) – Film laburra
- **Amaina** (Argentina, 2010) / Eduardo Crespo (Argentina) – Film laburra

Maiatza (14): Vincent Maraval ekoizle eta banatzailearen gutun zuria: Michel Hazanaviciusen **Le redoutable / Redoutable** filmeko aurkezpena eta proiekzioa.

Maiatza (31). Donostia Zinemaldian Urrrezko Maskorra irabazi zuen **Dasatskisi / Beginning** (2020) filmeko proiekzioa. Dea Kulumbegashvili hirira itzuli zen Tabakalerako Kultura Garaikidearen Nazioarteko zentroan egonaldi artistiko bat egiteko.

Ekaina (11): Vanja Kaludjercic Rotterdameko zinema jaialdiaren zuzendariarem gitim ziroa: Julien Farauten **Les sorcières de l’Orient / The Witches of the Orient** filmeko proiekzioa.

Iraila (4). Donostia Sarien irabazlei omenaldia: Marion Cotillard. Jean-Pierre eta Luc Dardenne zuzendarien **Deux jours, une nuit** filmeko proiekzioa.

Iraila (9). Donostia Sarien irabazlei omenaldia: Johnny Depp. Jim Jarmusch zuzendariaren **Dead Man** filmeko proiekzioa.

## 2. Ikerketa eta argitalpenak

Donostia Zinemaldiak zinemarekin eta jaialdiekin lotutako gaiak ikertu eta zabaldu nahi ditu. Aurtendik, Zinemaldiak, Elías Querejeta Zine Eskolarekin eta Euskadiko Filmategiarekin batera, Zine argitalpenaren kontseilu editorialaren baterako antolamenduan parte hartzen du. Argitalpenaren helburua ikerketa originalak biltzea da, ikerketa zinematografikoen esparruko ezagutza espezializaturako (edozein izanik ere diziplina-hurbilketa) lagungarriak direnak betiere. *Zine* argitalpenak martxoan argitaratu zuen bere lehenbiziko zenbakia.

Halaber, *Zinemaldia 70: historia posible guztiak* ikerketa-proiektuan bilduta, ikerketa-foku jakin batzuk zehaztu dira, eta artikulu akademikoetan edo biltzar eta mintegietako aurkezpenetan mamitzen dira foku horiek. Hain zuzen ere, aurten, Nesten 20.urteurrena dela-eta, Zinemaldian zinema-ikasleetzat egindako topaketei buruzko ikerketa bat argitaratu da. 2022an, Zinemaldiaren 70. edizioa dela medio, hainbat argitalpen aurreikusi dira zinema-jaialdien inguruan, Donostia Zinemaldiaren berezko ezaugarriei buruzko artikuluak, baita Zinemaldiaren zazpi hamarkadotan programatutako film esanguratsuei buruzkoak ere.

# Urte osoko zinemaldi bat

## 365 eguneko Zinemaldia Tabakaleran

### 3. Programa publikoak

Dibulgatzeko bokazioa urte osoko Zinemaldiaren kontzeptua osatzen duten ekimen guztietan dago. Hala, *Zinemaldia 70: historia posible guztiak* proiektuak konpromisoa hartzen du herritarrei, proiektuaren koordinatzaileak egindako ikasturteko azterketen emaitzei eta ikerketan parte hartu duten ikasleei zuzendutako programa publiko bat antolatzeko urtero. Proiektu horrekin lotuta, Kutxa Kultur Plazan –Tabakalerako laugarren solairuan– *Lehen urratsak. Beste begirada batzuk Donostia Zinemaldiaren historia bisualari* (1953-1970) izeneko erakusketa egin da aurten. Donostia Zinemaldiak, Kutxa Fundazioak eta Elías Querejeta Zine Eskolak (EQZE) antolatutako erakusketak berrogeita hamar urtetik gorako kontakizun bat eta hogeita hamar irudi –Zinemaldiaren artxiboko argazki-funtsetik eta Kutxateka bildumatik ateratakoak– ipini zituen ikusgai lurraldeko ikus-entzuleentzat. Berez lan isilari lotuagoa dagoen Ikusmira Berriak egonaldi-programak ere ateak ireki zituen aurten, eta egoiliarrekin zuzeneko podcast bat grabatu zuen. Celia Rico, Maddi Barber eta Arantza Santesteban zinemagileek, besteak beste, Zinemaldiaren programazioan parte hartu dute, eta ikus-entzuleekin egindako saioetan parte hartu dute Zinemaldia + Plus programaren bidez. Eta Dea Kulumbegashvili –Urrezko Maskorraren irabazlea 2020an– kontatutako zinemaren saio bateko protagonista izan zen Tabakalerako zinema-aretoan.

### 4. Funtsak

Zinemaldiak artxibo bat du, Zinemaldiaren historiako (ia zazpi hamarkada) film, argazki eta agiri orokorrez osatua. Gainera, Tabakalera eraikinak Euskadiko Filmategiaren funts historikoak eta Elías Querejeta Zine Eskola jada sortzen ari den funts berriak ere hartzen ditu.

Baina, gainera, Tabakalerako eraikinak Euskadiko Filmategiaren funts historikoak eta EQZE sortzen hasi den funts berriak hartzen ditu. EQZE Z-A proiektua garatzen ari da Medialabekin, zinemarekiko maitasunaren transmisioari buruzko artxibo eta dokumentazio zentroa. Zinemagile, erakunde eta kolektiboen funts espezifikoak bilduko ditu, baita bibliografia eta filmografia ere. Sortze-funtsa *Andrei Tarkovskiren lezio galduek osatzen dute* (70eko eta 80eko hamarkaden artean SESBen eman zituen hitzaldien soinu-artxiboak), baina beste hainbat funts ere gehituko dira, hala nola Pier Paolo Pasoliniren soinu-egunkariak *Mamma Roma* filmatzean edo Zinemaldiaren testuinguruan emandako lehen zinema-ikastaroetan. Zehazki, Z-A dokumentazio eta azterketarako zentro bat da zinemaren poetikei buruz, hau da, zinema-jardunbideen teorizazioari buruz: nola komunikatu, irakatsi, transmititu edo partekatu den zinema egiteko eta ikusteko lanbidea eta talentua. Z-A, beraz, ez da filmen artxibo bat, zinemagileen pentsamenduaren eta teorien artxibo bat baizik..

### 5. Formakuntza

Donostia Zinemaldiak apustu estrategiko handia egin du nazioartean erreferentziazko plataforma bihurtzeko, prestakuntza eta ezagutza transmititzeari, proiektuak garatzeari eta zinemagileak profesionalizatzeari dagokienez.

**Elías Querejeta Zine Eskola** (EQZE). Zinemaldiak parte hartu du, halaber, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017an sortutako nazioarteko zentro horren kontzeptualizazioan eta zuzendaritza akademikoan; zinemaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren inguruko pentsamendu, ikerketa, praktika esperimental eta berrikuntza pedagogikorako zentroa da EQZE.

**Nest**. Tabakalerak eta Donostia Zinemaldiak elkarrekin antolatzen dute Nest (zinema-ikasleei zuzendutako film laburren lehiaketa). Mundu zabaleko zinema-eskoletako ikasleak biltzen ditu Nestek, ikasle horien lanak aurretiaz hautatu direla, euren film laburren emanaldietan parte har dezaten, baita industriako profesionalen mintzaldi eta eskola magistraletan ere.

**Ikusmira Berriak**. Ikus-entzunezko proiektuak babesteko programa bat da, proiektu-garapena, prestakuntza eta mundo profesionala nahasten dituena, Tabakalera eta Elías Querejeta Zine Eskolak antolatua, 2015ean sortua, eta urteko egonaldiprograma bat ez ezik, hautaturiko lanei laguntza ekonomikoak emateko plan bat ere biltzen duena. Sormen-garapenerako toki bat, testuingurua eta denbora eskaintzeko helburua du egonaldiak.

Gainera, Zinemaldiak Noka Mentoring programan ere parte hartzen du, Eusko Jaurlaritzak sustatu eta Tabakalerak kudeatutako programan, hain zuzen, Euskadin eta Nafarroan diharduten zuzendari berrien film luzeetarako proiektuetan tutoretza-lanak egiteko, laguntzeko eta babesteko, bai eta 2deo Serieak programan ere, Tabakaleraren *mentoring*-programa telesail-sortzaileentzat.

# Urte osoko zinemaldi bat

## Elías Querejeta Zine Eskola

*Zinemaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko nazioarteko zentro bat da, pentsamendua, praktika esperimentala eta berrikuntza pedagogikoa eskaintzen dituena.*

Gipuzkoako Foru Aldundiak sortua eta finantzatua, Elias Querejeta Zine Eskola 2017an jaioa da, espiritu suhar eta berritzaileaz beterik; bere helburua ez da prestakuntza-eredu tradizional eta estandarizatuen araberako koadro teknikoak sortzea, baizik eta begirada integrala duten eta errealitate zinematografiko berriak (lan-arlokoak, kontzeptualak, sorkuntza-arlokoak, profesionalak) sortzeko gai diren zinemagileak sustatzea.

Donostia Zinemaldiak eskola bera kontzeptualizatu zuen lantaldean parte hartu zuen, Euskadiko Filmategiarekin eta Tabakalerako proiektu kulturalarekin batera. Zinema-jaialdi batek eskola baten sorreran parte hartzeak bulkada bikoitz bati erantzuten zion hasieratik.

Alde batetik, Elias Querejeta Zine Eskolak abiadura geldoago eta akademikoago bat ahalbidetzen zuen, eta, horri esker, Zinemaldia bera aztergai bilakatuko zen, eta, hortik abiatuta, bere burua birpentsatzen hasiko zen, zinema-jaialdien azterketaren testuinguruan.

Bestetik, eskolan parte hartuz, Zinemaldiak aurretik abian jarritako proiektuetan sakontzen jarraitu nahi zuen. Proiektu horiek zinemagileei, profesionalizaziorako bidean, babesa eta laguntza emateko helburua zuten, eta horien artean daude Nest saila, Ikusmira Berriak, proiektu berriak garatzeko programa, eta New Directors, Zinemaldiko atalik nabarmenenetako bat, zinemagileen lehen eta bigarren lanak biltzen dituena.

Gaur egun, Zinemaldia eskolaren zuzendaritza akademikoko kide da Tabakalerarekin, Euskadiko Filmategiarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera. Horrez gain, berezko irakasgai bat ere badu, Zinemaldia Eraikitzen, eta haren helburua –zeina bi erakundeen artean koordinatutako Zinemaldia 70: historia posible guztiak ikerketa-proiektuari lotuta baitago, halaber– eskolan dauden irakasle, ikasle eta profesionalekin batera honako galdera honi erantzun kolektibo bat ematea da: «Zer izan da, zer da eta norantz doa Donostia Zinemaldia?»

Era berean, zinema-jaialdiko zenbait profesionalek Komisariotzaren arloko ikasleen proiektu espezifikoen gaineko tutoretzan jarduten dute eta ikasleen azken hipotesiak ebaluatzeko batzordeetan parte hartzen dute. Zinemaldiak Elias Querejeta Zine Eskolako ikasleentzako ibilbide espezifiko batzuk sortu eta inplementatzen ditu, halaber, irailean, zinema-jaialdia egiten denean (Komunikazioa, Teknika, Nest), eta doako akreditazio bat ematen die eskolan sartu berri den promozioari eta eskolako ibilbidea amaitzen duen promozioari (90, guztira).

Azkenik, eskolako ikasleek parte hartzeko eta lehen harreman profesionala izateko espazio gisa ere planteatzen da zinema-jaialdia; horretarako ordaindutako hamabi praktika-plaza eskaintzen dira, erakundearen bost sailetan: Komunikazioa, Web & IKT, Industria, Prestakuntza (Nest), Teknika eta Z365.



Elías Querejeta Zine Eskolako laugarren promozioaren aurkezpena.

# 69. edizioko 69 irudi



Antonio Banderas eta Penélope Cruz, Perlak inauguratu zuen *Competencia oficial / Official Competition* filmeko protagonistak –Gastón Duprat eta Mariano Cohn zuzendariena–



Cécile de France aktorea, Xavier Giannoliren *Les illusions perdues / Lost illusions* filmaren (Perlak) aurkezpenean.



Evaristo Páramos, La Polla Records taldeko abeslaria, Javier Corcueraren *No somos nada / We Are Nothing* filmeko protagonista. Film horrek Zinemira saila abiarazi zuen.



Penélope Cruzek eman zion, ezustean, Donostia saria Marion Cotillardi.



Marion Cotillard, hunkiturik, Donostia Zinemaldiaren 69. edizioaren inaugurazio-galan, Donostia saria jaso ondoren.



Carlos Saura, *Rosa Rosae. La Guerra Civil / Rosa Rosae. A Spanish Civil War Elegy* (Sail Ofiziala, lehiaketaz kanpo) film laburraren zuzendaria, hasiera-ekitaldian.




Zhang Yimouk bideo bidez aurkeztu zuen *One Second* (Sail Ofiziala), film luzeen lehiaketa inauguratu zuen lana.




Euskal Zinemaren Irizar saria eskuratu zuen Maixabel (Sail Ofiziala) filmaren zuzendari Icíar Bollaín, Blanca Portillo eta Luis Tosar protagonistekin..




Lucille Hadzihalilovic, *Earwig* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), eta Epaimahaiaren Sari Berezia lortu zuen lan horretako aktore batzuk.



Jack Lowden aktorea eta Mike Elliott ekoizlea, *Benediction* filmaren (Sail Ofiziala) aurkezpenean. Terence Davies-ek (laukian) Gidoi Onenaren Epaimahaiaren Saria eskuratu zuen lan horrekin.




(H)emen ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoen sektoreko emakumeen elkarteko kideak, argazki sinboliko batean, emakumeek zineman duten lekua aldarrikatzen.



Julia Ducournau, Canneseko Urrezko Palmaren irabazlea, *Titane* filmeko (Perlak) aktore Agathe Roussellerekin eta Vincent Lindonekin eta Jean Christophe Reymondekin.



Louis Garrel *La croisade / The Crusade* lanaren (Perlak) zuzendari eta aktorea, Julia Boème eta Joseph Engel aktoreekin.




Helena Girón eta Samuel M. Delgado, *Eles transportan a morte / They Carry Death* filmaren zuzendariak (Zabaltegi-Tabakalera), Kafea gunean.




*Retour à Reims* (*Fragments*) / *Returning to Reims* filmeko taldea (Zabaltegi-Tabakalera), Jean-Gabriel Périot zinemagilearekin, Tabakalerako zinema-aretoan.




Tea Lindeburg zuzendaria eta gidoilaria, zeinak zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen *Du som er i himlen / As In Heaven* lanagatik (Sail Ofizialal), Flora Ofelia Hofmann Lindahl aktorearekin –Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorraren *ex aequo* irabazlea–




Inés Barrionuevo, *Camila saldrá esta noche / Camila Comes Out Tonight* filmaren zuzendaria (Sail Ofiziala), alfonbra gorrian.



Laurent Cantet, *Arthur Rambo* filmaren egilea (Sail Ofiziala), Donostia Zinemaldiko zuzendari José Luis Rebordinos agurtzen, Kursaaleko emanaldiaren aurretik.




Ryusuke Hamaguchi zinemagilea, Donostiara iristen Perlak sailean bi film aurkezteko: *Drive My Car* (lehiaketaz kanpo) eta *Guzen to sozo / Wheel of Fortune and Fantasy*.



Emma Suárez aktorea eta Javier Marco hasiberria, *Josefina / Josephine* pelikulako taldekide batzuekin (New Directors).



Céline Sciamma zinemagileak, zinema-ikasleei eskola magistral bat ematez gain, *Petite maman* (Perlak) aurkeztu, eta Donostia Hiria Publikoaren Saria eskuratu zuen.



Joachim Lafosse zinemagilea, *Les intranquiles / The Restless* filmeko protagonista Leïla Bekhti eta Damien Bonnard-ekin (Perlak).



Anastasiia Strukova eta Lena Lankikh, Kutxabank-New Directors saria jaso zuen *Nich'ya / Unwanted* laneko aktorea eta zuzendaria, hurrenez hurren.




Raphael abeslaria, bere lanari eta bizitzari buruzko *Raphaelismo* telesail dokumentala aurkezteko prentsaurrekoaren aurretik (Movistar Gala).




Asteburuan, Príncipe zinemetan haurrentzako zinema-saioak izan ziren, Amenabar enpresak babestuta.




Claire Simon zuzendaria eta gidoilaria, Swann Arlaud eta Emmanuelle Devos *Vous ne désirez que moi / I Want To Talk About Duras* filmeko protagonistekin (Sail Ofiziala).



Gabriela Suciu eta Alina Grigore, Urrezko Maskorra irabazi zuen *Crai nou / Blue Moon* filmaren (Sail Ofiziala) ekoizlea eta zuzendaria, hurrenez hurren.



María Valverde eta Dolores Fonzi aktoreak, *Distancia de rescate / Fever Dream* lanaren zuzendari Claudia Llosarekin (Sail Ofiziala).



Tatiana Huezo zinemagilea, *Noche de fuego / Prayers for the Stolen* lanaren egilea –Horizontes saria, RTVE-Beste Begirada saria eta Espainiako Lankidetza saria–.




The Industry Club, bere lehen egunean.



Gaspar Noe zinemagilea; *Vortex* lanarekin Zabaltegi-Tabakalera saria eskuratu zuen.



Ferrán Adrià chefa, Culinary Cinema inauguratu zuen *Las huellas de elBulli* dokumentaleko protagonista.



José Sacristán aktorea, 2021eko Espainiako Zinematografia sariduna.




Javier Bardem aktorea, Fernando León de Aranoa zuzendaria eta Jaume Roures ekoizlea, *El buen patrón / The Good Boss* filmaren kartelaren aurrean (Sail Ofiziala).



Almudena Amor, Óscar de la Fuente eta Manolo Solo, *El buen patrón / The Good Boss* filmeko aktoreak (Sail Ofiziala), alfonbra gorrian dantzan.




Zhang Ji, Sail Ofizialeko *Ping yuan shang de huo yan / Fire on the Plain* filmaren zuzendaria, bideokonferentziaz hitz egiten.



Paolo Sorrentino zinemagilea, È stata la mano di dio / The Hand of God filmaren aurkezpenean (Elkarrizketak).




Nest saileko ikasle ohi Kiro Russo, Inês de Lima, Mina Fitzpatrick eta Óscar Vincentelli, sailaren 20. urteurrena ospatzeko podcast bat grabatzen.



Florencia Montes, Vérane Frediani, Mauro Colagreco chefa eta Franck Ribière, *Reinventing Mirazur* lanari (Culinary Zinema) eskainitako afarian.




Esther Cabero eta Txema Muñoz, Kimuak programaren koordinatzaileak; Zinemaldiak saritu egin zuen film laburrak sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren egitasmoaren ibilbidea.



Maixabel Lasa, Eneko Etxeberria eta Martxelo Otamendi, Euskal Zinemaren Galan, non beraiek inspiratutako edo parte hartutako filmak (Zinemira) ahotan hartu ziren: *Maixabel*, *Bolante baten historia / Story of a Steering Wheel* eta *Paperezko hegoak*.



Johnny Depp aktore estatubatuarra, Zurriola hondartzatik txaloka zituenak agurtzen.




Hainbat pertsona hondartzan bildu ziren Johnny Depp aktorea txaloka adoratzeko.



Depp, bere ibilbide osoa aitortzen duen Donostia saria altxatzen.



Javier Gutiérrez, Juan Carlos Villanueva, Sofian Elben, Irene Virgüez eta Patricia López Arnaiz, Sail Ofizialean lehiaketaz kanpo proiektatu zen Manuel Martín Cuencaren *La hija* filmeko aktoreak.



Valeria Bruni Tedeschi eta Vincent Lindon, *Enquête sur un Scandale d'état / Undercover* (Sail Ofiziala) filmeko aktoreak, Thierry de Peretti zuzendariaren ondoan.



Emmanuel Carrère eta Jean-Luc Ormières, Donostia Hiria Publikoaren Saria –Europako Film Onena– eskuratu zuen *Ouistreham / Between Two Worlds* filmeko (Perlak) zuzendaria eta ekoizlea.




Sara Grgurić –*U šumi / In The Woods* film laburrarekin Nest saria irabazi zuen– eta Artur-Pol Camprubí –*Podul de piatrâ / Pont de pedra* film laburrarekin aipamen berezi bat eskuratu zuen–.




Hugo García, Aitor Calderón eta Miguel Ribera, Manu Gómezek RTVEren Galetan aurkeztu zuen Érase una vez en Euskadi / Once Upon a Time in Euskadi filmeko protagonistak.



*La caja / The Box* filmeko taldea (Horizontes Latinos), Lorenzo Vigas zuzendaria erdian dutela.



*La abuela / The Grandmother* filmaren (Sail Ofiziala) zuzendari Paco Plaza eta aktore Almudena Amor, Enrique López Lavigne ekoizlearen ondoan.



Jonás Trueba zinemagilea, *Quién lo impide / Who's Stopping Us* filmaren egilea (Sail Ofiziala), Taldeko Interpretazio Onenaren Zilarrezko Maskorra jaso zuen aktore-taldearekin.



Simon Rex aktorea, *Red Rocket* filmaren (Perlak) zuzendari Sean Baker seinalatzen.




Finn Halligan eta Inma Merino, Zinemaldiak kazetaritza-lanari egindako aipamenaren hartzaileak, Donostia Zinemaldiko zuzendari José Luis Rebordinosekin eta Turismoko sailburu Javier Hurtadorekin.




Roberto Cueto, Quim Casas eta Ana Cristina Iriarte, Loreak infernuan. Koreako zinemaren urrezko aroa liburuaren koordinatzaileak.




*Mediterráneo* filmaren (RTVE Galak) zuzendari Marcel Barrena, argazkiaren erdian, inguruan Sergi López, Eduard Fernández, Dani Rovira eta Anna Castillo aktoreak dituela.



Kristinaenea parkea, Louis Garrelen *La Croisade / The Crusade* (Perlak) filmaren emanaldian.



Filmaren proiekzioaren ondoren, Donostiako Nøgen taldeak kontzertua eman zuen Kristinaenean.



Jessica Chastain, *The Eyes of Tammy Faye* filmeko aktorea eta ekoizlea (Sail Ofiziala), zenbait jarraitzailerekin *selfie* bat egiten.




Michael Showalter zuzendaria, Chastainekin, zeinak Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorra *ex aequo* irabazi baitzuen *The Eyes of Tammy Faye* (Sail Ofiziala) lanagatik.




Alejandro Amenábar zuzendaria, bigarrena ezkerretik hasita, *La fortuna* telesaileko (Sail Ofiziala, lehiaketaz kanpo) protagonista Álvaro Melekin, Ana Polvorosarekin eta Stanley Tuccirekin.




Karra Elejalde, T'Nia Miller eta Manolo Solo, *La fortuna* telesaileko aktoreak.




Todd Haynes eta Christine Vachon, lehiaketaz kanpo Perlak saila itxi zuen *The Velvet Underground* filmaren zuzendaria eta ekoizlea, hurrenez hurren.



Marcos Ruiz, Chechu Salgado eta Begoña Vargas aktoreak, alfonbra gorrian, Daniel Monzónekin, 69. edizioa itxi zuen *Las leyes de la frontera* (Sail Ofiziala) filmaren zuzendariarekin.




Epaimahai ofizialeko kide guztiak (Susi Sánchez, Dea Kulumbegaxvili, Ted Hope, Maite Alberdi eta Audrey Diwan), klausurako ekitaldian sartu aurretik.




Taldeko Interpretazio Onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen *Quién lo impide / Who's Stopping Us* filmeko (Sail Ofiziala) zenbait aktore.



Flora Ofelia Hofmann Lindahl eta Jessica Chastain, Interpretazio Nagusi Onenaren Zilarrezko Maskorraren *ex aequo* irabazleak, hurrenez hurren, *Du som er i himlen / As in Heaven* eta *The Eyes of Tammy Faye* lanengatik.



Donostia Zinemaldiko 69. edizioko sari nagusien irabazleen argazkia.




Aline Grigore hasiberria, *Crai nou / Blue Moon* filmaren zuzendaria, 69. edizioko Film Onenaren Urrezko Maskorrarekin.

Babesle Ofiziala - Patrocinador Oficial - Official Sponsor

Media Partner

Laguntzaile Ofizialak - Colaboradores Oficiales - Official Collaborators